



# NAFARROAKO PARLAMENTUKO

## ALDIZKARI OFIZIALA

V. legegintzaldia

Iruña, 2003ko maiatzaren 15a

52. ZK.

### A U R K I B I D E A

#### F S A I L A:

#### Galderak:

- Galdera, Nafarroako Kutxako kontseilarien ordainsariei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (3. or.).
- Galdera, Navarra de Gestión para la Administración (NGA) enpresa sortzeari eta TRACASA saltzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (3. or.).
- Galdera, Nafarroako Gobernuak Madrilén duen ordezkariak egindako lanari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (4. or.).
- Galdera, informazioaren gizartea sustatzeko planean sartutako jarduketak betetzei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (6. or.).
- Galdera, modernizazio esparru berria abiarazteko laguntza teknikoa eta oinarrien garapena kontratatzei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (9. or.).
- Galdera, Tracasaren balizko pribatizazioa justifikatzen duten arrazoiei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (11. or.).
- Galdera, administrazioaren eta sindikatuen artean lorturiko akordioak betetzei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (12. or.).
- Galdera, erresonantzia magnetikoa egiteko itxaron zerrendei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (13. or.).
- Galdera, Europako Batasunaren erabakietan Nafarroak duen parte hartzei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (14. or.).
- Galdera, Baroja museoa eraikitzei aukerari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (15. or.).
- Galdera, Iruñerriko hotel batean sarrion bat agertu izanari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (16. or.).
- Galdera, ile-apaintetaren jarduerak duen arauketari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (17. or.).
- Galdera, Kasedako herrilurren egoerari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (18. or.).
- Galdera, Artozkiko Kontzejuan telefono zerbitzua berriz jartzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (20. or.).
- Galdera, Nafarroako Parlamentuak hartu zuen ondoko erabakia bete al den jakiteko: “drogazaleenganako arretoa dela-eta zenbait neurri hartzeko eskatzen da”. Foru Diputazioaren erantzuna (20. or.).

- Galdera, Nafarroako Parlamentuak hartu zuen ondoko erabakia bete al den jakiteko: “Nafarroako Gobernua premiatzen da kanabisaren erabilera terapeutikoa baimen dezan”. Foru Diputazioaren erantzuna (21. or.).
- Galdera, 2000-2003 eperako kirol-instalazioen planaren garapenari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (22. or.).
- Galdera, banantze edo dibortzio kasuetan mantenu- eta konpentsazio-pentsio ordaingabeen ehunekoari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (23. or.).
- Galdera, erasoen ondoriozko banantze eta dibortzioen indizeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (24. or.).
- Galdera, banantze- edo dibortzio-epaien ondoriozko mantenu- eta konpentsazio-pentsioak ordaintzen ez direnerako berme-funts bat sortzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (25. or.).
- Galdera, Osasunbidea eta Unibertsitate Klinikaren arteko kontzertuaren aldatetari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (26. or.).
- Galdera, Nafarroako arte garaikidearen zentroa Iruñeko ziudadelan eraikitzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (26. or.).
- Galdera, Figarolen antzemandako usain batzuen jatorriari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (27. or.).
- Galdera, Altsasuko Horbesal enpresaren egoerari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (28. or.).
- Galdera, SOS Navarra-Larrialdien Koordinaziorako Zentroko Positrom sistema informatiko berriaren funtzionamenduari eta egokitzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (29. or.).
- Galdera, Nafarroako familiari buruzko publizitatea egiteko gastaturiko diruari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (30. or.).
- Galdera, “Lagun Etxea” izenekoaren plaza batzuen hitzarmena bertan behera uzteari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (31. or.).
- Galdera, “Sancho el Mayor” helduentzako elkarteak jasotzen dituen laguntzei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (32. or.).
- Galdera, mendetasuna duten kideak dauzkaten familiei ematen zaien laguntzari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (33. or.).
- Galdera, Olaztiko harrobiko leherketen eraginei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (34. or.).
- Galdera, Unibertsitateetarako eta Hizkuntza Politikarako Zuzendaritza Nagusiko langile batzuen “zerbitzu eginkizunen” araubideari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (37. or.).
- Galdera, Ave Maria ikastetxe publikoaren handitzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (38. or.).
- Galdera, erasoen ondoriozko banantze eta dibortzioen indizeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (39. or.).
- Galdera, konpentsazio- eta mantenu-pentsioak ordaintzen ez direneko kasuen ehunekoari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (39. or.).

---

**F saila:**  
**GALDERAK**

---

## **Galdera, Nafarroako Kutzako kontseilarien ordainsariei buruzkoa**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari José M<sup>a</sup> Aierdi Fernández de Barrena jaunak Nafarroako Kutzako kontseilarien ordainsariei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 2002ko urriaren 22ko 97. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2002ko abenduaren 16an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

### **ERANTZUNA**

Foru parlamentari José María Aierdi Fernández de Barrena jaunak galdera egin du Nafarroa-

ko Kutzako kontseilarien ordainsariei buruz eta idatzizko erantzuna eskatu du. Hona hemen Ekonomia eta Ogasun kontseilariaren erantzuna:

Nafarroako Gobernuak ez daki zein den Nafarroako Kutzako kontseilariak jasotako ordainsarien zenbatekoa. Beraz, informazio hori aipaturako finantza entitateari eskatu beharko zaio.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 190. artikulua betetzeko.

Iruñean, 2002ko abenduaren 12an

Ekonomia eta Ogasun kontseilaria: Francisco Iribarren Fentanes

---

## **Galdera, Navarra de Gestión para la Administración (NGA) enpresa sortzeari eta TRACASA saltzeari buruzkoa**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak Navarra de Gestión para la Administración (NGA) enpresa sortzeari eta TRACASA saltzeari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 2002ko azaroaren 12ko 105. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2002ko abenduaren 16an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

### **ERANTZUNA**

Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak galdera egin du Navarra de Gestión para la Administración (NGA) enpresa sortzeari eta TRACASAREN zenbait akzio enpresa pribatuei saltzeari buruz. Hona hemen Ekonomia eta Ogasun kontseilariaren erantzuna:

TRACASAREN partaidetza enpresa horren hazkundearen alde egiteko salduko da, horrek bide emanen duelakoan aukera gehiagoz baliatzeko merkatuan produktu, prezio eta bezeroen arloetan lehiatzerakoan, eta halaber informazio sistemen gaitan talde indartsu batek Nafarroan enpresa garapena izan dezan lagunduko duelako.

Enpresa berriaren akzioen banaketa haxe izanen da aurrerantzean: % 4, Nafarroako Gobernuarena, % 30, Nafarroako Kutzaren Korporazioarena, % 11 GTTrena eta % 10 IECISArena.

Enpresa baten salmenta ez denez eta horren jarduerari eutsi zaionez, ez da beharrezkoa inongo eskubiderik subrogatzea.

Horrek guztiak ez du eraginik izanen langileen

egoeran. Akziodun berriek bermatu dute lanpostu guztien jarraipena.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 190. artikulua betetzeko.

Iruñean, 2002ko abenduaren 12an

Ekonomia eta Ogasun kontseilaria: Francisco Iribarren Fentanes

## **Galdera, Nafarroako Gobernuak Madrilen duen ordezkariak egindako lanari buruzkoa**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari José M<sup>a</sup> Aierdi Fernández de Barrena jaunak Nafarroako Gobernuak Madrilen duen ordezkariak egindako lanari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 2002ko azaroaren 22ko 111. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2002ko abenduaren 16an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

### **ERANTZUNA**

Foru parlamentari José María Aierdi Fernández de Barrena jaunak galdera egin du Nafarroako Gobernuak Madrilen duen ordezkariak egindako lanari buruz eta idatzizko erantzuna eskatu du. Hona hemen Ekonomia eta Ogasun kontseilariaren erantzuna:

2002. urtean, Nafarroako Gobernuak Madrilen duen ordezkariak Nafarroako Kutzaren bulegoetan jardun du, behin-behinekoz.

Bulego berria zaharberritu eta segurtasun neurrietara egokitzeko lanak hemendik gutxira hasiko dira, Nafarroako Gobernuko Ondare Zerbitzuak adjudikaziorako kudeatu duen lehiaketa publikoa arautu duten oinarrien prozedurari jarraikiz. Nafarroako Gobernuaren ordezkariak lagunduko du administrazio tramiteak arintzen Madrileko Udalean.

Hori hala izanik, ordezkariaren zerbitzuan ari diren langileak ordezkaria bera eta Ekonomia eta

Ogasun kontseilariaren kabineteko administrari-laguntzaile bat dira.

Nafarroako Gobernuak Madrilen duen ordezkariak, Ekonomia eta Ogasun Departamentuaren eta Nafarroako Gobernuaren beste instantzia batzuen jarraibideak betez eta udal, organismo eta erakundeen eskaerei erantzunez, laguntza eman du kudeaketak egiten Kanpo Gaietarako Ministerioan, Ekonomia Ministerioan, Ogasun Ministerioan, Sustapen Ministerioan, Ingurumen Ministerioan, Barne Ministerioan, Lan eta Gizarte Gaietako Ministerioan, Madrileko Autonomia Erkidegoan eta Valentziako Autonomia Erkidegoan.

Era berean, zenbait kudeaketa egin dira enbaxada hauekin: Amerikako Estatu Batuak, Kolonbia, Txile, Aljeria, Egipto, Libia, Benin, Mexiko, Hungaria, Irak, Nikaragua, Salvador, Kuba, Panama. Espainiak hainbat herrialdetan dituen enbaxada eta kontsulatutan ere bai. Kudeaketa horien gaiak mota askotakoak izan dira. Nabarmendu behar dira fundazioekin eginiko bilerak, komunikabideetako arduradunekin, gobernu lehendakari ohiekin, sindikatu eta alderdietako buruekin, entitate ekonomikoekin, guztiak Nafarroak merkatari-tzarako eta inbertsioetarako dituen aukerak eza-gutzeko irrikan. Beste herrialde batzuetan aferak dituzten nafarren eskaerei erantzutea. Enbaxadoreek Nafarroara eginiko bisita ofizialen prestaketa lanak, bai eta gizarte, ekonomia eta politikaren arloko bestelako erakundeak ere.

Era berean, Nafarroako Gobernuak edo bere kideren bat ordezkatzeko hala egitea espresuki eskuordetzen dioten ekitaldietan.

Bestalde, Nafarroako Gobernuaren ordezkariak parte hartu du ekitaldi instituzional askotan,

Nafarroako Gobernuak Madrilen duen ordezkari-tzak gonbita jaso duenetan alegia. Onarturiko 50 gonbiten artean hauexek nabarmendu daitezke:

- Ekitaldi akademikoetan honakoetan: Unibertsitate Konplutentsea, Unibertsitate Autonomoa, IESE (Nafarroako Unibertsitatea), Comillas, CEU, Alcalá, hainbat ikasle-egoitza.

- Gobernu zentraletako eta Nafarroako Gobernu zentralerako zenbait ministeriorekin elkarlanean aritzea Hungariako Gobernuarekin eta Europako Batasunarekin talde berezien integrazio kultural, ekonomiko eta sozialari buruzko adiskidetze programa prestatu eta defenditzeko. (leader proiektua, 18 hilabete betearazteko 2003ko urtariletik aurrera).

- Lankidetzak, garapen eta harreman ekonomiko eta merkataritzakoak bultzatzeko Poloniaren eta Espainiaren arteko Fundazioarekin elkarlanean aritzea.

- Belgikaren eta Nafarroaren arteko harremanak sustatzeko Amberes Fundazioaren lanetan parte hartzea.

- EZA lankidetzak Errumania, Eslovenia, Lituania, Kosovo eta Mediterranioko mugaz haraindiko eskualdeen eta Europako Batasunaren arteko topaketei begira.

- Nafarroako kultura, historia, ekonomia eta gizarte garapena gai nagusitzat duten erakundeek Madril antolatzen dituzten ekitaldietara joatea.

- Nazioko nahiz nazioarteko sari emateetan parte hartzea. Bai eta lider politiko eta sozialek parte hartzen duten nazioarteko foroetara bertaraztea.

Egungo eta etorkizuneko jarduketak arestian azaldutakoen haritik garatuko dira, horiek definitzen baitute ordezkariaren lana. Egun, lanean ari gara halaber Egipto, Polonia, Txina eta Estatu Batuetako enbaxadoreek hurrengo hilabeteetan, aurki, Nafarroara egiten dituzten bisiten prestaketan.

Gaur egun, funtzionamenduko gastuak, batez beste, 2.381,83 eurokoak (396.303 pezeta) izan dira, eta horien artean handienak bidaiek, Iruña eta Madril arteko joan-etorriek eta Madril barreraren ibiltzeko garraioaren erabilerak eragindakoak.

Langileen gastuak, berriz, Nafarroako Gobernu zentralerako Zerbitzuko Funtzio Publikoaren Zuzendaritza Nagusiari egozten zaizkio.

Ordezkaritzari atxikitako langileak Ekonomia eta Ogasun kontseilariaren kabinetekoak dira. Egun, langileak hauek dira: ordezkaria, A mailako

funtzionarioa, Gobernu Kontseiluak izendatua eta zerbitzu berezietako egoeran dagoena, eta administrari-laguntzaile bat, aldi baterako administrazio kontratu batekin izendatua. Beraz, prozedura da legeak arautzen duena Nafarroako Gobernu kontseilariaren kabinetetako kideak izendatu eta kargutik kentzeko prozedura bera.

Etorkizunean, egoitza berriaren erreforma dela-eta sortuko diren gastuak Nafarroako Gobernu zentralerako Ondare Zerbitzuari egotzirik daude.

Gobernuak 2001eko ekainaren 4an harturiko Erabakiaren bidez onetsi zen Goya kaleko 48ko 1. solairuko eskuinean dagoen finka erostea, eta Ekonomia eta Ogasun Departamentuari atxiki zitzaion. 145.000.000 pezetatik erosi zen, hau da, 871.467,55 eurotan.

Ekonomia eta Ogasun kontseilariak abuztuaren 9an eman zuen 188/2001 Foru Aginduaren bidez egoitza egokitzeko laguntza tekniko kontratatu zitzaion Mariano González Presencio arkitektoa buru duen taldeari, 1.975.000 pezetako zenbatekoan, hau da, 11.869,99 eurotan.

Oinarri teknikoak behin erredaktaturik, Ekonomia eta Europako Aferen zuzendari nagusiak otsailaren 12an emaniko 81/2002 Ebazpenaren bidez onetsi zen "Nafarroako Gobernuaren Madrilgo Delegazioaren egoitza gaitzeko obretako proiektuaren prestakuntza, zuzendaritza fakultati-boa eta exekuzioa" kontratatuzko espedientea, prozedura irekian eta lehiaketa bidez.

Ekonomia eta Ogasun kontseilariak apirilaren 19an emaniko 109/2002 Foru Aginduaren bidez lehiaketa eman gabe zegoela deklaratu zen eta lizitazio berria onetsi zen.

Ekonomia eta Europako Aferen zuzendari nagusiak ekainaren 25ean emaniko 469/2002 Ebazpenaren bidez Lantegia S.L. sozietateari adjudikatu zitzaion "Nafarroako Gobernuaren Madrilgo Delegazioaren egoitza gaitzeko obretako proiektuaren prestakuntza, zuzendaritza fakultati-boa eta exekuzioa", 271.856,09 euroko zenbatekoarekin.

Lanak ez dira oraindik hasi, Madrilgo Udalari eskatutako obra eta jardura lizentzia noiz eskuratu zain.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 190. artikulua betetzeko.

Iruñean, 2002ko abenduaren 12an

Ekonomia eta Ogasun kontseilaria: Francisco Iribarren Fentanes

## Galdera, informazioaren gizartea sustatzeko planean sartutako jarduketak betetzeari buruzkoa

### FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak informazioaren gizartea sustatzeko planean sartutako jarduketak betetzeari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 2002ko azaroaren 22ko 111. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2002ko abenduaren 16an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

### ERANTZUNA

Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak zenbait galdera egin ditu, informazioaren gizartea sustatzeko planaren baitan herritarrari Internet bidez ematen zaion arretan jarduketa zenbait bete ote diren jakiteko. Hona hemen Lehendakaritza, Justizia eta Barne konseilariaren erantzuna:

#### FORU ADMINISTRAZIOAREN ATARIAREN BERRANTOLAKETA

##### 1. galderaren erantzuna

Lana guztiz amaituta dago, eta jadanik ekoizpen fasean dago.

##### 2. galderaren erantzuna

Proiektuaren tamaina dela-eta, barneko lan-talde bat osatu zen. Lan-talde hori egonkorra izan da denbora guztian, eta kanpoko enprekin lan egiten du. Taldea honakoek osatzen dute, nagusiki:

- Lehendakaritza Zuzendaritza Nagusiko kaze-tariak (2)
- Antolaketa teknikariak (2), erdi mailako teknikariak (4) eta sistema informatikoetako goi mailako teknikariak (2), Antolaketa eta Informazio Sistemen Zuzendaritza Nagusikoak.
- Nafarroako Gobernuako departamentu guztietako ordezkariak, koordinatzaile gisa.

Gai puntualagoetan, Nafarroako Gobernuko beste teknikari batzuek euren laguntza eman dute proiektuaren garapen guztian zehar.

Lan-talde horrek honako eginkizun hauek bete ditu:

- Zehaztapen eta diseinu faseak: bi fase horietan parte hartzea, hala arlo funtzionalean nola teknologikoan.
- Garapen fasea:
  - Webgunea garatzeko blokeak balidatzeko beharrezkoak diren proba guztiak egitea.
  - Webguneko blokeen balidazio funtzionala.
  - Edukiak kargatzea: bloke hauen edukiak kargatu dira:
    - \* Horrelakoa da Nafarroa eta zati instituzionala: Komunikabide Zerbitzuak sartua.
    - \* Laguntza, beka, kontratazio eta enplegu publikoaren katalogo bateratua, Nafarroako Foru Komunitateko administrazioeko departamentu guztietako langileek sartua.
    - Ezarpen fasea: Nafarroako Atariaren ezarpean talde-lana egin da, garapen, aurre-ekoizpen eta ekoizpen arloetan.

Halaber, barneko langileek proiektuaren planifikazioaren eta jarraipenaren ondoriozko eginkizunak bete dituzte, eta barne komunikaziokoak ere bai, hau bezalako proiektu batean hain garrantzitsuak direnak. Aurkezpenak egin zaizkie Gobernuari, zuzendari nagusiei, departamentuetako koordinatzaileei eta departamentuz departamentu.

Azken horiek bideratuta zeuden, nagusiki, laguntza, beka, kontratazio eta enplegu publikoaren katalogora. Langintza horretan ekintza ugari egin dira atariaren helburu nagusietako bat lortzeko; hau da, zerbitzu horiei buruzko informazio guztia eduki berean jasota egotea.

Antolaketa-diseinu deritzogu Nafarroako Foru Komunitateko administrazioak atarirako lan egiten eduki behar duen lan-taldeari.

Lehen fase honetan landu dira, alde batetik, erakunde batek horrelako atari batean kalitate onargarriz lan egiteko izan behar dituen profilen zehaztapena eta bestetik, bete behar dituen eginkizunak.

Profil horiek zehazturik daude jadanik. Horrelakoak izan behar dituzte bai unitate zentralek bai departamentuek; izan ere, abiapuntutzat hartu dugun ideia da departamentuek behar diren langi-

leak izan behar dituztela edukiak sartzekoan arintasunez jarduteko, beste unitate batzuen esanetara egon behar izan gabe.

Antolakuntzaren diseinuari dagokionez, honako ohar hauek egin behar ditugu:

- Ezinbestekoa da diziplina askotako lan-talde egonkor bat eratzea, Nafarroako Atariaren ardura har dezan, erakunde guztietan egiten den antzera, hala publikoetan nola pribatuetan.

- Nafarroako Atariaren ezarpenak agerian utzi du administrazioak beharrezko duela oraintxe ez dituen zenbait profil bereganatzea. Sakonki aztertu behar da profil horietatik zein diren barne-langileek garatu beharrekoak eta zein kasutan den errentagarriago, arrazoi ezberdinak direla-eta, enpresa pribatuei kontratatzea.

- Aurreranzko urratsak oso azkar ematen ari den arlo bati buruz ari garenez, beharrezkoa da kanpoko enpresen laguntza izatea, barneko langileekin batera lan egin dezaten atariaren hurrengo bertsioen balio-proposamenen zehaztapenean.

### 3. galderaren erantzuna

“Trabajos Catastrales, S.A.”ri eman zitzaion ardura, “Nafarroako Gobernuaren modernizazio esparru berria abiarazteko oinarriak taxutzeko laguntza teknikoak” lehiaketaren ondorioz.

## NAFARROAKO GOBERNUKO WEBGUNEAREN KUDEAKETA ETA MANTENTZE LANAK

### 1. galderaren erantzuna

Lan horiek, euren izaera dela-eta, ez daukate amaitze-egunik, etengabe sortzen doazen eginkizunak baitira, webgunearen ekoizpenari eutsi behar bazaio.

### 2. galderaren erantzuna

Nafarroako Gobernuaren webgunea (cfnavarra.es) abiarazi zenetik, mantentze lanetarako taldea Antolaketa eta Informazio Sistemen Zuzendaritza Nagusiko bost teknikariek osatzen dute.

### 3. galderaren erantzuna

Orain arte ez da zerbitzu horretarako berariazko kontrataziorik egin. Dena den, aintzat harturik administrazioaren modernizazio eta eraberritze prozesuan zer-nolako garrantzia duen ez webguneak, baizik eta Nafarroako Atariak, azterketa eginen da hori kudeatu eta mantentzeko beharrezkoak diren baliabide eta profilei buruz eta, beharrezkoa izanez gero, eginkizun horiek betetzeko kanpoko enpresak kontratatzeari buruz.

## SINADURA DIGITALA EZARTZEA

### 1. galderaren erantzuna

2000. urtean, Nafarroako administrazioak egiteko asmoa zuen transakzioetan sinadura digitala sartzeko beharrari buruzko gogoeta egin zen, erabiltzailearen autentifikazioa, transakzioen isilpeko-tasuna eta haien aurkako jarrera bermatzeko bidea zelakoan. Horretarako, Antolaketa eta Informazio Sistemen Zuzendaritza Nagusiak azterketa sakona egin zuen eskueran zeuden aukerei buruz, eta haien artean hiru hautu nagusi bereizi zituen:

- Autoritate ziurtagiri-emaile pribatu batera jotzea.

- Autoritate ziurtagiri-emaile publiko batera jotzea.

- Autoritate ziurtagiri-emaile bereki bat garatzea.

Hiru aukerek zekartzaten kostuak eta eskatzen zuten garapen eta orokortze ahalmena ikusirik, bigarrenaren aldeko hautua egin zen, eta kontuan izanik bilakaera teknologikoa eta zabalkundearen kostua eta aukerak, hauxe erabaki zen: Nafarroako Foru Komunitateko administrazioaren beharri zaneiei hobekien egokitzen zitzaieen produktua CERES Proiektua (Certificación Española) zela, Diruaren eta Zerga-zigiluaren Fabrika Nazionalak/Diruaren Errege Etxeak garatua.

Hori horrela, CERES produktuaren lehen probak 2000ko Errenta Kanpainan egin ziren; zehazki, PFEZaren aitoren telematikoa ahalbidetu zen. Proba horiek emaitza ona izan zuten, eta horrela, 2001en bukaeran lankidetzat hitzarmen bat sinatu zen Diruaren eta Zerga-zigiluaren Fabrika Nazionala/Diruaren Errege Etxearekin. Horren ondorioz, Nafarroako Foru Komunitateko administrazioarentzat sinadura digitaleko eta ziurtagiri-emate elektronikoko hornitzaile bilakatu zen, eta administrazio horrek erregistro-autoritate zeregina bereganatu zuen. Hitzarmen hori 2002an berritu da.

Ekitaldi honetan zehar, sinadura digitala beste tributu-aitorpen telematikoa batzuetara hedatu da, pertsona juridikoentzako sinadura digitala barne. Halaber, posta segururako proiektu bat nahiko aurreratua dago. Posta hori segurua da ziurtagiri elektronikokoak eta sinadura digitala erabiltzearen ondorioz. Toki entitateentzat litzateke, Toki Administrazio Departamentuarekin eta Lehendakari-tza Departamentuarekin (zehazki, Nafarroako Aldizkari Ofizialaren Zerbitzuarekin) harremanetan jartzen direnerako.

Jarduera horietarako zerbitzua behar bezalako ia izan dadin, ziurtagiri-emate digitala erregistratzeko bulegoen sare bat garatu da, Nafarroako Zerga Ogasunaren Bulegoetan eta Toki Administrazioako Erregistroan oinarritua. Horregatik, gaur egun nafar guztxi berma diezaiekegu sinadura digitala dohainik eskuratzea. Sinadura horren erabileraren ezarpena abian da, eta Nafarroako Atariak bereganatuko dituen tramiteen arabera izanen da.

#### 2. galderaren erantzuna

Antolaketa eta Informazio Sistemen Zuzendaritza Nagusiko langileek egin dute.

- 2 atalburu
- Antolaketako erdi mailako 2 teknikari
- Informatika sistemetako erdi mailako 2 teknikari

#### 3. galderaren erantzuna

Ez da kanpo kontrataziorik egin.

### HERRITARREI EMAN BEHARREKO ARRETARI CRM APLIKATZEAREN INGURUKO AZTERKETA

#### 1. galderaren erantzuna

Barne azterketa bat egiten ari da, hirugarrenentzako arretari dagokionez, administrazioaren problematikari gehien egokitzen zaizkion CRM teknikak modernizatzeko planaren esparruan.

#### 2. galderaren erantzuna

2 pertsona daude esleituta.

#### 3. galderaren erantzuna

Une honetan, herritarrek Nafarroako Ataria nola erabiltzen duten ikertzeko azterlan bat abian da, eta horretarako lanabes bat erabiltzen ari da. Xedea da datuak lortzea, Nafarroako Atariko eduki eta zerbitzuen nolako erabilera egiten den ezagutzeko.

### BULEGOETAKO INGENIARITZA

#### 1. galderaren erantzuna

Bulegoetako ingeniariak dira produktibitate personalerako lanabes guztxiak, hala nola: testu-prozesadoreak, kalkulu-orria, datu-baseak, aurkezpenetarako programa, nabigatzailea eta posta elektronikoa, zeinak erabiltzaileen ordenagailuetan instalatzen baitira, euren lana egiteko. Beraz, prozesua jarraia da.

#### 2. galderaren erantzuna

Antolaketa eta Informazio Sistemen Zuzendaritza Nagusiaren barnean, 5 teknikarik osaturiko lan-talde bat dago, lanabes horiekin automatizazioak egiten dituena. Halaber, erabiltzaileei laguntzen diete, euren prozesuak errazteko.

#### 3. galderaren erantzuna

Oraingoz ez dago inolako kontrataziorik egiteko asmorik.

Hori guztxia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikulua betetzeko.

Iruñean, 2002ko abenduaren 13an

Lehendakaritza, Justizia eta Barne kontseilaria: Rafael Gurrea Induráin



## **Galdera, modernizazio esparru berria abiarazteko laguntza teknikoa eta oinarrien garapena kontratatzeari buruzkoa**

### **FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA**

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak modernizazio esparru berria abiarazteko laguntza teknikoa eta oinarrien garapena kontratatzeari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 2002ko azaroaren 22ko 111. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2002ko abenduaren 16an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

### **ERANTZUNA**

Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak zenbait galdera egin ditu, Nafarroako Gobernuaren modernizazio esparru berriaren oinarriak garatzeko eta konponbideak aurkitzeko laguntza teknikoa kontratatzeari buruz. Hona hemen Lehendakaritza, Justizia eta Barne kontseilariaren erantzuna:

#### **1. GALDERA**

Bi lehiaketa horietan garaiz eta forman "Trabajos Catastrales, S.A." sozietateak onarturiko proposamenak egin zituzten pertsona juridiko edota fisikoen izenak

#### **ERANTZUNA**

*1. kontratua:* Nafarroako Gobernuaren modernizazio esparru berriaren oinarriak diseinatzea.

– Andersen MBC Y CÍA. S.R.C.

*2. kontratua:* Soluzioak garatzea Nafarroako Gobernuaren modernizazio esparru berrian.

– Microsoft Ibérica S.R.L.

– Coverlink

#### **2. GALDERA**

Bi lehiaketotako adjudikazio-hartzaileak eta kontratatu beharreko lanen zenbatekoa

#### **ERANTZUNA**

*1. kontratua:*

– Andersen MBC Y CÍA. S.R.C.

-Tracasak Andersen enpresari adjudikatu zion 1.827.608 eurotan.

*2. kontratua:*

– Microsoft Ibérica S.R.L.

-Tracasak Microsoft enpresari adjudikatu zion 1.101.701 eurotan.

#### **3. GALDERA**

Bi egitasmo hauen egungo betetze maila eta egitasmo bakoitzarendako foru administrazioak edota "Trabajos Catastrales, S.A." sozietateak esleituriko langile kopurua, lanaldia eta lanon nolokotasuna zehaztuz.

#### **ERANTZUNA**

*1. kontratua:*

Proiektua amaiturik. Betetze maila % 100

– Foru administrazioiko langileak:

Antolaketako goi mailako teknikari 1	Guztira
Antolaketako goi mailako teknikari 3	Lanaldi partziala
Informatika sistemetako goi mailako 1 teknikari	Guztira
Informatika sistemetako goi mailako 3 teknikari	Lanaldi partziala
Antolaketako erdi mailako 2 teknikari	Guztira
Antolaketako erdi mailako 2 teknikari	Lanaldi partziala
Informatika sistemetako erdi mailako 2 teknikari	Guztira
Informatika sistemetako erdi mailako 3 teknikari	Lanaldi partziala
Tributu ogasuneko goi mailako 6 teknikari	Lanaldi partziala
Tributu ogasuneko kudeaketarako 2 teknikari	Lanaldi partziala
Prentsa kabineteko kazetari 1	Lanaldi partziala
Legelari 1	Lanaldi partziala
Fotokonposizioko teknikari 1	Lanaldi partziala
Administrari 1	Lanaldi partziala

– Trabajos Catastrales S.A.ko langileak:

Proiektuaren jarraipena eta kontrola egiteko goi mailako teknikariak, 70 orduko dedikazioarekin.

Administrariak.

*2. kontratua:*

Gaurko egunean, proiektuaren % 90 bete da, eta epea 2002ko abenduaren 31n amaituko da.

– Foru administrazioiko langileak:

Antolaketako goi mailako teknikari 1	Guztira
Antolaketako goi mailako teknikari 1	Lanaldi partziala
Informatika sistemetako goi mailako 2 teknikari	Guztira
Informatika sistemetako goi mailako 2 teknikari	Lanaldi partziala
Antolaketako erdi mailako 2 teknikari	Lanaldi partziala
Informatika sistemetako erdi mailako 2 teknikari	Guztira
Informatika sistemetako erdi mailako 2 teknikari	Lanaldi partziala
Tributu ogasuneko goi mailako 7 teknikari	Lanaldi partziala
Tributu ogasuneko kudeaketarako 2 teknikari	Lanaldi partziala
Nafarroako Foru Auzitegi Ekonomiko-Administratiboko 4 teknikari	Lanaldi partziala
Nafarroako Foru Auzitegi Ekonomiko-Administratiboko 4 administrari	Lanaldi partziala
Kazetari 1	Lanaldi partziala
Fotokonposizioko teknikari 1	Lanaldi partziala
Administrari 1	Lanaldi partziala

– Trabajos Catastrales S.A.ko langileak:

Proiektuaren jarraipena eta kontrola egiteko goi mailako teknikariak, 50 orduko dedikazioarekin.

Administrariak.

#### 4. GALDERA

Kontratazio eta segimendu lanok Nafarroako Gobernuak "Trabajos Catastrales, S.A." sozietatearen bidez egitearen zioak.

#### ERANTZUNA

Lan horiek "Trabajos Catastrales, S.A."ren bidez egiteko arrazoiak hauexek dira:

1. Antolaketa eta Informazio Sistemen Zuzendaritza Nagusien baliabide falta.
2. Proiektu hauetarako behar diren espezializazio profilak.
3. Presakoa izatea, eta horrek denbora laburrean egitera behartzen du.
4. Ezagutza barneratzea erkidegoko enpresa publikoetan, balio handiagoko aktiboak sortzeko.

#### 5. GALDERA

Bi lehiaketa hauetako baldintza orriak onartu zirenerako, edo lehiaketok esleitu zirenerako, bazuen Nafarroako Gobernuak "Trabajos Catastrales, S.A." elkartearen kapital sozialaren gehien-goia pribatizatzeko asmoa edo hipotesia? Hala balitz, Nafarroako Gobernuak edo "Trabajos Catastrales, S.A." sozietatea GTT eta IECISA sozietateekin negoziatzean ari zen, hondar bi hauek "Tra-

bajos Catastrales, S.A." enpresaren akziodun egite aldera?

#### ERANTZUNA

Departamentu honi dagokionez, Antolaketa eta Informazio Sistemen Zuzendaritza Nagusiak, arlo horretako eskumena duenak, ez zuen horren berri, alegia Gobernuak "Trabajos Catastrales, S.A." pribatizatzeko asmoa zuenik lan horiek eskatzean.

Horrekin guztiarekin ere, Nafarroako Gobernuak "Trabajos Catastrales, S.A." enpresa publikoaren inguruan hartutako erabakiak enpresa horri eskatu beharreko lanak onetsi eta haren eskuetan utzi ondokokoak dira, Gobernuak 2002ko abuztuaren 26an eta urriaren 28an eginitako bilkuretan hartutako erabakietan islaturik daudenak; urriko bilkuran baimena eman zitzaion Ekonomia eta Ogasun kontseilariari "Trabajos Catastrales, S.A." sozietate publikoaren kapitala besterentzea negoziatzeko, besterentze hura gauzatzeko behar ziren egintza, tramite eta kudeaketekin.

#### 6. GALDERA

Bi lehiaketotako baldintza ekonomiko-administratiboaren orrian zehazten da, lanaren jabetza "Trabajos Catastrales, S.A."-rena izanen dela, eta ez Nafarroako Gobernuarena. Nafarroako Gobernuak asmoa al du, nahiz eta lanok sozietate publiko batek kontratatutak izan, eta kontuan izanik hartzailea foru administrazioa bera dela, arestian aipaturiko lanon jabetza intelektuala esku pribatuetan uzteko?

#### ERANTZUNA

Ez da bidezkoa jabetza intelektuala "Trabajos Catastrales, S.A."ren esku uztea.

"Trabajos Catastrales, S.A." enpresak, prestazioaren zati bat hirugarrenekin kontratatzean, beretzako gorde du klausulen orrian jabetza intelektuala.

Nafarroako Gobernuak, bere aldetik, jabe bakarra da, kontuan harturik "Trabajos Catastrales, S.A." enpresaren eta Nafarroako Gobernuaren artean dagoen zerbitzu harremana eskaera betetzeko.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikulua betetzeko.

Iruñean, 2002ko abenduaren 13an

Lehendakaritza, Justizia eta Barne kontseilaria: Rafael Gurrea Induráin

## **Galdera, Tracasaren balizko pribatizazioa justifikatzen duten arrazoiei buruzkoa**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari Milagros Rubio Salvatierra andreak Tracasaren balizko pribatizazioa justifikatzen duten arrazoiei buruz egin-dako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 2002ko azaroaren 22ko 111. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2002ko abenduaren 16an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

### **ERANTZUNA**

Foru parlamentari Milagros Rubio Salvatierra andreak galdera egin du TRACASaren zenbait akzio enpresa pribatuei saltzeari buruz. Hona hemen Ekonomia eta Ogasun kontseilariaren erantzuna:

TRACASaren partaidetza enpresa horren hazkundearen alde egiteko salduko da, horrek bide emanen duelakoan aukera gehiagoz baliatzeko

merkatuan produktu, prezio eta bezeroen arloetan lehiatzerakoan, eta halaber informazio sistemen gaitetan talde indartsu batek Nafarroan enpresa garapena izan dezan lagunduko duelako. Hori guztia onuragarria izanen da enpresako langileen-tzat eta Foru Komunitate osoarentzat.

Salmentarako jarraitu beharreko prozedura da edozein partaidetza saltzeko berbera, hau da, aditu independenteek akzioak baloratuko dituzte eta negoziarako ekarpen onena egin dezaketzen bazkideak hautatuko dira.

Horrek guztiak ez du eraginik izanen langileen egoeran. Akziodun berriek bermatu dute lanpostu guztien jarraipena.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 190. artikulua betetzeko.

Iruñean, 2002ko abenduaren 12an

Ekonomia eta Ogasun kontseilaria: Francisco Iribarren Fentanes

## **Galdera, administrazioaren eta sindikatuen artean lorturiko akordioak betetzeari buruzkoa**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari José Andrés Burguete Torres jaunak administrazioaren eta sindikatuen artean lorturiko akordioak betetzeari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 2002ko azaroaren 27ko 112. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2002ko abenduaren 18an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

### **ERANTZUNA**

Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentuko Taldeko foru parlamentari José Andrés Burguete Torres jaunak galdera egin du jakiteko zertan den Nafarroako Administrazio Publikoetako langileen 2002. eta 2003. urteetarako lan baldintzei buruz Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta sindikatuen artean sinatutako itunaren betetzea. Hona hemen Lehendakaritza, Justizia eta Barne kontseilariaren erantzuna:

1. Akordioaren 2.B) idatz-zatian sarturiko aurreikuspenetarako, gaueko ordutegian eta lan egunetan lan egiteko kalte-ordainetan sarturiko aldaketei dagozkienetarako, haiei buruzko arauak aldatu behar dira, bai Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuaren arloan, bai Foru Komunitateko administrazioaren eta haren erakunde autonomoen arloan ere, indarra izan dezaten.

Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuari dagokionez, foru dekretu baterako proiektua pres-tatu zen; proiektu hori, erakunde sindikalekin negoziatu eta adostu ondoren, Nafarroako Kontseiluari igorri zitzaion, behar zen irizpena eman zezan. Berriki irizpen hori eman da, eta hemendik gutxira Nafarroako Gobernuak onetsi eta Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da.

Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta haren erakunde autonomoen gainerako arloei dagokienez, foru dekretu baterako proiektua prestatu zen ere; proiektu hori, beharrezko trami-teak iragan ondoren, Nafarroako Gobernuak onetsi zuen joan den azaroaren 4ko bilkuran (azaroaren 4ko 225/2002 Foru Dekretua). Gaur egun, argitaratzeko zain dago.

Hala eta guztiz ere, bi foru dekretu horiek aurreikusten dute eragin ekonomikoak 2002ko urtarrilaren 1ean hasiko direla, sindikatuekin 2002ko apirilaren 15ean 2002 eta 2003. urteetarako sinaturiko akordioan xedatua betez. Hori dela eta, Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu bezain laster izanen dituzte ondorioak.

2.- Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko oinarrizko osasun laguntzako aldeetako mediku eta erizainen kapitazio osagarriari dagokionez, hura berrikusi eta egokitzeko arau bat onetsi behar da, behar diren tramiteak bete ondoren.

Horri dagokionez, foru dekretu baterako zirriborro bat prestatu da, eta sindikatuetara igorri da, negoziatzeko, akordioan ezarritakoa aplikatuz. Behin tramite hori bete denean, Nafarroako Kontseiluari igorriko zaio, irizpena eman dezaten; gero Nafarroako Gobernuak onetsi eta Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da.

Foru dekretu horren zirriborroa egiteak lan handiagoa eskatu du, kapitazio osagarria eta oinarrizko osasun laguntzako taldeetako langileen banaketa geografikoaren osagarria arautuko dituzten parametroak finkatzeko zailtasunengatik; izan ere, bi osagarri horiek batera tratatuko dira.

Hala eta guztiz ere, sindikatuetako ordezkari-ekin adostutakoa aplikatuz, kapitazio osagarriaren arautze berria, itundutako igoerarekin, 2002ko urtarrilaren 1etik aurrera aplikatzea aurreikusi da.

E mailako lanpostuetan bi urteren buruan % 7ko lanpostu osagarria emateari dagokionez (% 3 2002an eta % 4 2003an), neurri hori, sindikatueta-ko ordezkariekin izenpeturiko akordioaren ondorioa dena, gainerako osagarriak bezala, uztailearen 2ko 143/2002 Foru Dekretuan jaso da, hamabigarraren idatz-zatian, eta ukituen nominan sartu da, behar den atzera indarrarekin.

Igoera hori Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko langileen berriazko osagarrian aplikatzeari dagokionez, aurreikuspen hori erantzun honetako 1. idatz-zatian aipaturiko foru dekretu-ko proiektuan jasota dago, zeren eta dekretu horretan Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko lanpostuetako ordainsari osagarri guztien arautzea jasotzen baita, osorik nahiz partzialki indarrean zeuden aurreko arau guztiak berriaz indarrak gabe utziz (hain zuzen ere, 9 foru dekretu). Behin hura onesten eta argitaratzen denean,

kasuan kasuko kopurua nominan ordainduko zaie ukitu guztiei, 2002ko urtarrilaren 1eko atzera indarrekin.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta hurren-

goetan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2002ko abenduaren 17an

Lehendakaritza, Justizia eta Barne kontseilaria: Rafael Gurrea Induráin

## Galdera, erresonantzia magnetikoa egiteko itxaron zerrendei buruzkoa

### FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari Elena Torres Miranda andreak erresonantzia magnetikoa egiteko itxaron zerrendei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 2002ko azaroaren 12ko 105. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2002ko abenduaren 20an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

### ERANTZUNA

Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeko foru parlamentari Elena Torres Miranda andreak 117/2002 galdera egin du, 2002ko urriaren 25ean, erresonantzia magnetiko bat egiteko itxaron zerrendei buruz. Galdera hori urriaren 29an jaso zen departamentu honetan. Hona hemen Osasun kontseilariaren erantzuna.

Erresonantzia magnetiko bat egiteko itxaron zerrendak

Solchaga Anbulatorioa	668
Bideko Ama Birjina Ospitalea	412
Nafarroako Ospitalea	558

Erresonantzia magnetikoa egiteko batez besteko berandutza 30-45 egun ingurukoa da.

Erresonantzia bidezko azterketak, zentroka:

Solchaga Anbulatorioa 25

Bideko Ama Birjina Ospitalea 13 (gogoan izan behar da ikasketa-prozesu batean dihardutela

orain, ez irudiari buruzkoa, baizik eta RMN berriaren teknologiar buruzkoa).

Nafarroako Ospitalea 16tik 24ra bitartean (azterketa-motaren arabera).

Txandak:

Solchaga Anbulatorioa	Goiz eta arratsaldez.
Bideko Ama Birjina Ospitalea	Goizez
Nafarroako Ospitalea	Goizez

Baldin eta Solchaga Anbulatorioak Nafarroako Ospitaleak baino itxaron zerrenda luzeagoak izanen balitu, ez litzateke komeni gaixoak Nafarroako Ospitalera bideratzea, lan-talde bakoitzak ezaugarri berekien arabera esleiturik baitaizka bere eginkizunak. Adibidez, Solchagako lan-taldea soil-soilik lan egiten du giharretako eta eskeletuko azterketekin eta gaixo klaustrofobikoekin.

Ospitaleratutako gaixoei dagokienez, irizpide orokorra da berandutzarik ez egotea, eta egunean bertan egitea azterketa.

Nafarroako Ospitaleko erresonantzia magnetikoko zerbitzuaren arratsaldeetako txanda kendu egin da, baliabide-esleipenaren efizientziari, agenden kudeaketari eta erradiologoaren eskuragarritasunari dagozkien arazoak direla-eta. Inondik ere ez da izan osasun-gastuaren inolako murrizketaren ondorioz.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2002ko abenduaren 16an.

Osasun kontseilaria: Santiago Cervera Soto

## **Galdera, Europako Batasunaren erabakietan Nafarroak duen parte hartzeari buruzkoa**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari José M<sup>a</sup> Aierdi Fernández de Barrena jaunak Europako Batasunaren erabakietan Nafarroak duen parte hartzeari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 2002ko azaroaren 22ko 111. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2002ko abenduaren 20an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

### **ERANTZUNA**

EA/EAJ-PNV Parlamentuko Taldeari atxikitako Eusko Alkartasuneko foru parlamentari José María Aierdi Fernández de Barrena jaunak galdera egin du Europako Batasunaren erabakietan Nafarroak duen parte hartzeari buruz. Hona hemen Lehendakaritza, Justizia eta Barne kontseilariaren erantzuna.

Nafarroako Gobernuak Parlamentuan askotan azaldu izan du galdera honetan aipaturiko gaietan daukan jarrera. Zehazki, 2002ko martxoaren 14ko Osoko Bilkuraren Bilkura Egunkarian jasota dago (66. aldizkaria, 56. Osoko Bilkura), bai eta Nafarroako Gobernuko lehendakariak Foru Araubide Batzordean 2002ko martxoaren 12an egindako agerraldian ere, zeina batzorde horren Bilkura Egunkarian sartuta baitago (11. aldizkaria, 2002ko martxoaren 12koa).

Azken agerraldi horretan osoki irakurri zen, eta halaxe esaten da Bilkura Egunkarian, Gobernuko lehendakariak Administrazio Publikoen ministroari bidalitako gutuna, Lankidetzaz Legeari buruzko galdetegiari erantzuten ziona, eta hor gai hau jorratzen da.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2002ko abenduaren 13an

Lehendakaritza, Justizia eta Barne kontseilaria: Rafael Gurrea Induráin

## **Galdera, Baroja museoa eraikitzeko aukerari buruzkoa**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari Juan Cruz Alli Aranguren jaunak Baroja museoa eraikitzeko aukerari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 2002ko azaroaren 27ko 112. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2002ko abenduaren 20an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

### **ERANTZUNA**

Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentuko Taldeko foru parlamentari Juan Cruz Alli Aranguren jaunak galdera egin du Baroja museoa eraikitzeko aukerari buruz. Hona hemen Hezkuntza eta Kultura kontseilariaren erantzuna:

Vianako Printzea Erakundea-Kultura Zuzendaritza Nagusiak zenbait urrats eman ditu Barojatarren Museoa Beran, Caro Baroja familiarekin adostuta betiere, eraikitzeko aukerari begira. 2002ko ekitaldian 89.790,20 euroko dirulaguntza eman da. Itzea etxearen aurrean, Beran, dagoen Domiñenea etxea egokitzeko gastuen % 50 egiten du kopuru horrek. Horixe da museoa sortzeko lehen urratsa, horren bidez bizileku bat atonduko baita Itzeako multzoa zaintzeaz arduratuko den familiarentzat. Hain zuzen ere, Itzean gordetzen da Barojatarren ondare handia. Kultura Zuzendaritza Nagusiak, Ekonomia eta Ogasun departa-

mentuarekin koordinaturik, lehen urratsak ere eman ditu Beran bertan etxe bat erosteko, Itzeako ondarearen zati bat gordeko duena, jendaurrean paratu ahal izateko.

Gai honi loturikoan, denbora guztian Caro Baroja familiarekin harremanetan izan gara, eta bertako udalarekin ere bai. Azken horrek uneoro agertu digu proiektuaren aldeko jarrera. Domiñenea etxeari dagokionez, dirulaguntzarena izan da hautatutako bidea, Caro Baroja familiak hala jokatzea nahiago izan duelako. Museoko instalazioez denaz bezainbatean, Vianako Printzea Erakundeak bere programa gisa garatzea nahiago du, erakina egokitzeari eta bere funtzionamenduari dago-kienz behintzat, nahiz eta proiektuaren baitakoa (zeina Caro Baroja familiak ematen baitu) eta Pío Caro Baroja jaunaren ardurapeko edukiaren araberakoa izanen den betiere. Orain arte izandako elkarrizketen haritik, etorkizuneko museo horri ezarri beharreko helburua da publikoak ikuspegi orokor eta zabala barneratu dezan lortzea, Barojatarak (Ricardo, Pío eta Julio Caro Baroja) izan direnari buruz. Horretarako, museoak objektu erakusgarriak eta kalitatezkoak izan beharko ditu ikusgai, interesa duen jende guztiari bilduma eza-gutarazi ahal izateko moduko epe batez.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2002ko abenduaren 17an

Hezkuntza eta Kultura Kontseilaria: Jesús Ma Laguna Peña

## Galdera, Iruñerriko hotel batean sarrio bat agertu izanari buruzkoa

### FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari José Andrés Burguete Torres jaunak Iruñerriko hotel batean sarrio bat agertu izanari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu dadin agintzen da. Galdera hori 2002ko abenduaren 2ko 114. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2002ko abenduaren 23an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

### ERANTZUNA

Nafarroako Demokratikoen Elkargunea Parlamentuko Taldeko foru parlamentari José Andrés Burguete Torres jaunak galdera egin du Iruñerriko hotel batean sarrio bat agertu izanari buruz, eta idatziz erantzun dakion eskatu du. Hona hemen Ingurumen, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza kontseilariaren erantzuna.

1. Foruzaingoak 2002ko abenduaren 5ean egindako txostenean honako hau adierazten da, El Toro Hotelaren instalazioetan sarrio bat agertzearen zergatiari buruz:

Animalia honen agerpenak ez dauka kausa naturalik animalia basatia Berriobeitin, bere habitat naturaletik atereaz eta oztopo artifizial ugari, errepideak eta abar zeharkatuz, agertzea azaltzen duenik.

– Beraz, guztiz baztertzeko da animalia bere kabuz eta kausa naturalak direla-eta hotelera iritsi izana.

– Sarrioa El Toro hotelaren instalazioetan agertu izana azaltzeko aintzat hartu diren aukerak hauexek dira:

a) Sarrioa hotelera iritsi zen bertan lan egiten duten pertsonetakoren batek ekarri zuelako. Uneren batean, zainpean zegoen tokitik alde egin

zuen, eta, galduta, hotelaren instalazioetan sartu zen. Hantxe harrapatu zuten foruzainek.

b) Hotelean aparkaturiko ibilgailuetakoren batean zegoen sarrioa, eta bertatik alde egin zuten. Jarraian, jadanik azaldutako ibilbidea egin zuten.

b) Sarrioa hoteletik hurbil dagoen sarroi edo instalazioren batean zegoen, eta handik irten eta jadanik azaldutako ibilbidea egin zuten.

Tokian egindako begi-ikuskapenetik, adierazpenetatik, ikerketetatik eta gainerako inguruabarretatik ondorioztatzen da lehen aukera dela ziurrena.

2, 3. 2002ko irailaren 16an sarrio bat bizirik agertu zen Izaban, eta Zaragozako Unibertsitateko Animalia Patologiako Departamentuko Basa Faunaren Diagnostiko Zerbitzura bidali zen, haren osasun-egoerari buruzko diagnostikoa egin zezan. Analisiaren txostena doa honekin batera. Nagusiki, keratokonjuntibitisa eta estresaren ondoriozko miopatia antzeman dira. Tratamendua ezarri zitzaion, baina ez zuen hobera egin, eta teknikariek animalia akabatzea erabaki zuten.

2002ko urriaren 31n jasotako sarrioaren sintomak eta lesioak azaldu dugun kasukoak zituen berberak dira. Animalia Iruñeko Albaitaritza Klinikaren instalazioetaraino eraman zuten, Ingurumen Departamentuarekin itundutako zentroa baita basa fauna tratatzeko. Albaitaritza zerbitzuek bi patologia horiek egiaztatu zituzten. Ondorioz, departamentuko teknikariek, animalia ingurune naturalean berriz txertatzea ezinezkoa zela ikusirik, hura akabatzea erabaki zuten, arrazoi etikoak zirela medio.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduen 184. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2002ko abenduaren 19an

Ingurumen, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza kontseilaria, Jesús Javier Marcotegui Ros



## Galdera, ile-apainketaren jarduerak duen arauketari buruzkoa

### FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua Parlamentuko Taldeak ile-apainketaren jarduerak duen arauketari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 2002ko uztailaren 22ko 76. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2003ko urtarrilaren 13an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

### ERANTZUNA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua Parlamentuko Taldeari atxikitako foru parlamentari Félix Taberna Monzón jaunak galdera egin du ile-apainketaren jarduerak duen arauketari buruz. Hona hemen Industria eta Teknologia, Merkataritza, Turismo eta Lan kontseilari Nuria Iturriagoitia andrearen erantzuna.

Nafarroako ile-apaintzaileen elkarteak eskatu du ile-apaintzailearen lanbiderako "sarrera" arautu dadila, bai eta hartan "jardutea" ere. Horretarako eskatzen du enpresa eta profesionalek ile-apainketako zerbitzu profesionalak ematen jarduteko bete behar dituzten betekizun eta baldintzak ezar daitezela; bai lanbidean aritzea ahalbidetzen duten titulazioei dagokienez, bai eta enpresa eta lokalek jarduera horretan aritu ahal izateko bete behar dituzten betekizunei dagokienez ere. Hori guztia oinarritzen dute 1999/42/CEE Zuzentarauan eta apirilaren 15eko 390/92 Errege Dekretuan.

Aipaturiko Zuzentarauaren transposizioa egi-ten ari da Espainiako zuzenbidera, errege dekretu baterako proiektu baten bitartez, zeren eta 390/92 Errege Dekretua hura baino lehenagokoa baita. Zuzentarau horren helburu nagusia da Europako Batasunean lanbideari askatasunez ekin eta hartan askatasunez ere jarduteko eskubidea bermatzea, eta, berariaz, Estatu kide bateko pertsona batek Europako Batasuneko beste herrialde batean bere lanbideari ekin eta horretan jarduteko zer baldintza bete behar dituen arautzea, aipaturiko herrialdeak horretarako baldintza bereziak eskatzen dituenean.

Zuzentarauak bi jarduera mota edo multzo bereizten ditu: a) jarduera askeak, hau da, kasurik gehienak; horietan espainiar herritarrek jarduteko,

Espainian, ez da prestakuntzarik eskatzen, eta horregatik, ezin izanen zaie halako prestakuntzarik eskatu Europako Batasuneko kide diren beste estatu batzuetatik datozen herritarrei; eta b) jardun ahal izateko nolabaiteko prestakuntza beharrezkoa duten jarduerak, agintari eskudunak (kasu askotan, autonomia erkidegoek) finkaturiko araudiari jarraikiz.

Ile-apainketa, jarduera gisa, eta ile-apaintzaile lanbidean jardutea, bestelako jarduera eta lanbide askorekin gertatzen den bezalaxe, ez daude loturik, ez Espainiako Estatuan ez Nafarroan ere, haiek arautzen dituen berariazko araudi batera. Horregatik, une honetan ez dago inolako oztoporik Europako Batasuneko kide diren beste Estatu batzuetako nazionalak Foru Komunitatean lanbideari askatasunez ekin eta horretan askatasunez jarduteko.

Azaldutakotik argi asko ondorioztatzen da ezen ez Europako Zuzentarauak, ez eta haren transposizioa eginen duen errege dekretuaren proiektuak ere, ez dituztela behartzen administrazio eskudunak, autonomia erkidegoak, nahiz eta ahalmena ematen dieten jarduera horiek berariaz arautzeko. Ildo horretatik, badirudi erkidegoren batek, zehazki Galiziak, hala jokatu duela, eta ile-apainketaren jardueran aritzea izaera pertsonaleko zerbitzuak emateko jarduera gisa hartu dute, bi ikuspegitatik: Alde batetik, profesionalei prestakuntza-maila egokia eskatzeko, lanbide-esperientziarik edo behar den titulaziorik ez daukaten pertsonak lanbidean aritzea saihesteko xedez, eta horrela lanbide-intrusismoa eragozteko. Eta bestetik, zerbitzu hauen kontsumitzaile eta erabiltzaileak babesteko xedez.

Halaber, adierazi beharrekoa da ile-apaintzailearen lanbidean sartzea eta horretan aritzea arautua ez egote hutsak ez duela esan nahi legezko hutsunerik dagoenik. Arauketa, ez bakarrik ile-apainketarena, baizik eta beste jarduera askorena ere, komenigarritasunaren auziari dagokion kontu bat da, baina, arautzekotan, kontsumitzaile eta erabiltzaileen babesaren ikuspegitik egin beharko litzateke betiere, eta ez lanbide-jarduera batean diharduten pertsonen babes korporatiboarenetik.

Iruñean, 2002ko urtarrilaren 10ean

Industria eta Teknologia, Merkataritza, Turismo eta Lan kontseilaria: Nuria Iturriagoitia Ripoll

## Galdera, Kasedako herrilurren egoerari buruzkoa

### FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari Juan Cruz Alli Aranguren jaunak Kasedako herrilurren egoerari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 2002ko abenduaren 16ko 119. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2003ko urtarrilaren 13an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

### ERANTZUNA

Nafarroako Demokratikoen Elkargunea Parlamentuko Taldeko foru parlamentari Juan Cruz Alli Aranguren jaunak galdera egin du Kasedako herri-lurren egoerari buruz. Hona hemen Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura kontseilariaren erantzuna:

Erantzuna ezin da mugatu legegintzaldi hone-tan gauzaturiko ekintzetara, egindako galderak 1995. urteaz geroztiko kontuekin zerikusia daukaten gaiei buruzkoak baitira.

1995-10-19an, garai hartan Nekazaritza, Abeltzaintza eta Herrien Sustapenerako Departamendua izena zuenaren menpeko Herrilurren Atalak trantsakzio-hitzarmen baten zirriborro bat prestatu zuen, non konpentsazio-ehuneko bat ezarri eta justifikatzen baitzen gozamenaren %40koa. 1996ko martxoaren 2an, "Jabeen batzorde" izenekoak, zeina euren interesak defendatzeko eratu baitzen Kasedan, trantsakzio-hitzarmenaren zirriborroan bildutako proposamenei ezezkoa eman zien, idazki baten bidez. Herrilurren Atalak dokumentu horri buruzko txosten bat eman zuen 1996ko apirilaren 18an, eta txosten horretan bere proposamenari eutsi eta hura arrazoitzen zuen.

1996ko apirilaren 26an, Kasedako Udalaren Osoko Bilkurak trantsakzio-hitzarmen bat onetsi izuen, eta bertan partikularrentzat ezartzen zen konpentsazio-ehunekoak zen onuradunek gozaturiko eta frogaturiko azaleraren % 70ekoa. (1. eranskina)

Proposaturiko hitzarmeneko klausulek ahalbidetzen zuten herrilurrak erosketa bidez eskuratzea eta lurzati berrantolamendua exekutatzea.

1996ko apirilaren 24an, Kasedan zeuden auzipeko lurren titularren batzar nagusiak, trantsakzio-

hitzarmenaren proposamenaren berri izan ondoren, erabaki bat hartu zuen, non bidezkotzat jotzen baitzen lur-edukitzaileei lur horien % 85eko ehunekoak ematea konpentsazio gisa.

1996ko maiatzaren 27an, Nekazaritza Egituren Zerbitzuko Herrilurren Atalak hitzarmen-proposamenari buruzko txostena eman zuen, eta bere irizpideari eutsi zion; alegia, % 40a ehuneko egokia dela partikularrari konpentsazioa emateko.

1996ko abuztuaren 2an, Lehendakari-tza kontseilariak txosten bat bidali zion garai hartan Nekazaritza, Abeltzaintza eta Herrien Sustapenerako kontseilari zen Echarte jaunari. Txosten hori Aholkularitza Juridikoak egina zen, eta bertan ez bidezkotzat jotzen zen trantsakzio-hitzarmenari dagokionez subrogazioa egitea, hori kasuan kasu toki entitatearen ahalmena zelakoan.

Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura kontseilari gisa izan nituen lehenengo ekitaldietako batean, nire bulegoan 1996ko urriaren 10ean 08:30ean bilera bat egiteko dei egin nion Kasedako Alkate Andrés Basterra jaunari, zeina udal batzorde batekin batera agertu baitzen. Herrilurren espedientearen zein egoeratan zegoen jakinarazi nien, eta esan nien asmoa neukala Aholkularitza Juridiko Zentralari txosten bat eskatzeko Kasedako Udalak onetsitako trantsakzio-hitzarmenaren proposamenari buruz.

Aholkularitza Juridikoak 1997ko otsailaren 13an eman zuen eskaturiko txostena. Bertan ondorioztatzen zen trantsakzio-hitzarmena Kasedako Udalarari itzuli behar zitzaioela, ordenamendu juridikoari egokitzeko, partikularrentzako konpentsazio-ehuneko handia zela-eta. Halaber, ustiategiak osatzeko helburuz herrilurrak saltzea oro har onartezina zela esaten zen. (II. eranskina)

1997ko maiatzaren 20an bilera bat egin zuten Herrilurren Atalak eta Kasedako Udalak. Egoera ikusirik, bilera horretan toki entitateak zenbait aukera proposatu zituen, legeak edo erregelamenduak aldatzeko zegozkionak. Azkenik, eta Kasedako Udalak eskaturik, bilera bat egin zen Nafarroako Jauregian, 1998ko martxoaren 3an, Nafarroako Gobernuaren lehendakariordearekin eta nirekin, kontseilari nintzen aldetik. Bilera hartan, egoera eta aholkularitza juridikoak prestatutako txostena aintzat hartuz, hitzarmenaren tramitazioa etetea erabaki zen, inolako administrazio-egintzarik egin gabe, etorkizunean trantsakzio-hitzarmen bat egiteko aukera ahalbidetzeko. Hori guztia,

Kasedako Udalak eginiko proposamena bideragarria ez izan arren, aholkularitza juridikoak eginiko txostenaren arabera.

Uste dut azpimarratu beharrekoa dela egintza-multzorren garaietan Kasedako alkatea Andrés Basterra jauna zela, informazio hau eskatu duen Parlamentuko Taldeko foru parlamentaria, hain zuzen ere.

“Impasse” egoera horretan, departamentuak txosten bat eskatu zion I.T.G. Agrícola, Kasedako ekoizpen tradizionalen emaitza ekonomikoetara, Toki Administrazioari buruzko Legeari jarraikiz, Kasedako herri-ondasunen onuradunentzako konpentsazio-ehunekoan izanen lukeen eraginari buruzkoa, sorturiko arazorako irtenbide bat bilatu nahian. Behean sinatzen duen honek uste osoa zeukan arazoaren muina dela ehuneko egokia zehaztea, auziko alderdiei judizioz kanpoko erantzun asebetegarria emateko, kalkulu ekonomiko zorrotzetan oinarriturikoa.

2000ko ekainaren 26an, I.T.G. Agrícola delakoak txostena eman zuen, eta haren ondorioa da konpentsazio-ehunekoak, eginiko balioespenaren arabera, % 60koa izanen litzatekeela partikularrentzat (III. eranskina). Herrilurren Atalak txosten horrekiko desadostasuna adierazi zuen, eta hasierako irizpideari eutsi zion; alegia, onuradunentzat % 40a.

Irizpideak ezberdinak zirela ikusirik, departamentuak erabaki zuen administrazioarekiko independentea den norbaiten balioespena eskatzea. Horrela, txostena Valentziako Unibertsitate Politeknikoko katedradun Vicente Caballer Mellado jaunari eskatzea erabaki zen, nazioan nekazaritza-balioespenen esparruan prestigiorik handieneko teknikaria izaki.

2001eko abenduan eman zen eskaturiko txostena, eta bertan, Vicente Caballer jaunak, balioespena egin ondoren, ondorioztatu zuen partikularrentzat bidezkoa zen ehunekoak gozamenean edukitako lurren % 60a zela (IV. eranskina). Herrilurren Atalak azalpenak eskatu ondoren, Nekazaritzako Egituren Zerbitzuko zuzendaritzak trantsakzio-hitzarmen baten balizko zirriborroa prestatu zuen, Aholkularitza Juridiko Zentralari horren aldeko txostena eskatzeko.

2002ko urriaren 11n, Aholkularitza Juridikoak trantsakzio-hitzarmenerako proposamenaren zirriborroaren aldeko txostena eman zuen, eta txosten hori jaso ondoren, Kasedako Udalarik 2002ko urriaren 22an bilera egiteko deia egin zitzaion.

Hartan, Aholkularitza Juridikoak konpentsazio-ehuneko berriari dagokionez emandako aldeko txostenaren berri eman zitzaion, hura onesteko prozesuari ekin ziezaioten, bidezkotzat jotzen baldin bazuten. (V. eranskina)

Herrilurrak erosteari buruzko salaketak egoteari dagokionez, 2000ko martxoaren 1ean Ekonomia eta Ogasun Departamentuko Lurralde Aberastasunaren Zerbitzuaren ofizio bat jaso zen, non txosten bat eskatzen baitzen 14. poligonoko 100. lurzatiak zuen erregistroko inskripzioari eta katastroko egoerari buruz; horren zergatia zen, hain zuzen ere, Agoizko Jabetza Erregistroak ediktu bat argitaratu izana, finka hura Jesús Antonio Esparza Iriarte jaunak eta Blanca Fernández Renedo andreak inskribatzeari buruzkoa. Herrilurren Atalak 2000ko apirilaren 7an eman zuen eskaturiko txostena, eta bertan adierazten zuen finka jadanik erregistratua zegoenez gero ez zela ulertzen berriro inskribatzeko beharra, eta finka hori jabetza partikularrekoa zela.

Beranduago, erregistro ofizialean 2000-12-13an inskribatua izan zela adierazten zuen data zeukala, Enma eta Natividad Leoz Ventura andreak izenpeturiko idazki bat aurkeztu zen, eta bertan salatzen zen partikular batzuek herrilurrak erosi eta Erregistroan inskribatu zituztela. Azpimarratu beharrekoa da Herrilurren Atalak zaindu egiten duela, Jabetza Erregistroaren ediktuari buruzko txostenen bitartez, finkarik inskriba ez dadin baldin eta herrilur izatearen uste osoa baldin badu. Aztergai dugun kasuan, ediktu horiek ez dira igorri; dena den, Herrilurren Atalak, 2001eko urriaren 23an, txosten bat eman zuen, eta bertan esaten zuen ez zegoela kezkatzeko arrazoirik, zeren eta finken herrilur-izaera beti nagusitu egiten baita; are gehiago Kasedako Landalurren Katastroa gaurkotua dagoenean. Halaber, argitzen zuen ezen inskripzioa oker eginez gero, Jabetza Erregistroan, inskripzio hori desegiteko ebazpen judiziala behar dela.

Hori jakinarazten dizut Legebiltzarreko Erregelamenduaren 190. artikuluan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2003ko urtarrilaren 8an

Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura kontseilaria Ignacio Javier Martínez Alfaro

(Oharra: aipatutako eranskinak foru parlamentarien esku daude Biltzarreko Zerbitzu Orokorretako bulegoetan).

## **Galdera, Artozkiko Kontzejuan telefono zerbitzua berriz jartzeari buruzkoa**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua Parlamentuko Taldeak Artozkiko Kontzejuan telefono zerbitzua berriz jartzeari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 2002ko azaroaren 27ko 112. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2003ko urtarrilaren 23an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

### **ERANTZUNA**

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua Parlamentuko Taldeak galdera bat egin du Artozkiko kontzejuan telefono zerbitzua berriz jartzeari buruz. Hona hemen Herrilan, Garraio eta Komunikazio kontseilariaren erantzuna.

1. Zein urrats eman ditu edo eman behar ditu Nafarroako Gobernuak Artozkiko kontzejuko telefono publikoaren zerbitzua berriz abian jartzeko?

Nafarroako Gobernuak Telefónica de España. S.A.U.ri igorri zion Artozkiko telefono publikoa konpontzeko eskaera, Félix Urrizalqui Andraiz jaunak aurkeztua Artozkiko Kontzejuaren ordezkari gisa, eta aintzat har zezala eskatu zion operatzaile horri.

Bestalde, adierazi beharrekoa da Estatuko Administrazioak eta, bereziki, gai hau arautzen duen agintari nazional den Telekomunikazioen Merkatuaren Batzordeak, erabateko eskumena duela telekomunikazio-operatzaileek (eta, batez ere, operatzaile nagusi den horrek) euren betebeharrak betetzen ote dituzten kontrolatu eta betebeharrak haiek betearazteko, Telekomunikazioei buruzko Lege Orokorreko 35. artikulua ezartzen duen bezala.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2003ko urtarrilaren 21ean

Herrilan, Garraio eta Komunikazio kontseilaria: José Ignacio Palacios Zuasti

## **Galdera, Nafarroako Parlamentuak hartu zuen ondoko erabakia bete al den jakiteko: “drogazaleenganako arreta dela-eta zenbait neurri hartzeko eskatzen da”**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Foru parlamentari Carlos Cristóbal García jaunak ondoko galdera egin zuen: «Galdera, Nafarroako Parlamentuak hartu zuen ondoko erabakia bete al den jakiteko: “drogazaleenganako arreta dela-eta zenbait neurri hartzeko eskatzen da».

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 2002ko uztailaren 22ko 76. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2003ko urtarrilaren 28an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

### **ERANTZUNA**

Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeari atxikitako foru parlamentari Carlos Cristóbal jaunak 75/2002 galdera egin du jakiteko zertan den drogazaleenganako arreta dela-eta zenbait neurri hartzeko eskatzeko hartutako erabakiaren betetzea. Hona hemen Osasun kontseilariaren erantzuna.

Osasun, gizarte, epaile eta abarren arloetako baliabide publikoetatik ematen zaie laguntza drogak kontsumitzeagatik arazoak dituzten pertsonen, zeinek batzuetan drogarekiko mendekotasuna baitaukate. Laguntzen esparruko baliabideak erabilera publikoko sarean kokaturik daude, oinarritzeko.

ko osasun laguntzaren lehen mailatik ospitaleratzearen hirugarren mailaraino.

Pertsona horietatik gehienei adimen osasuneko sarean ematen zaie laguntza, zeren eta psikiatriaren arloko eraberritzea egin zenetik egokitzat jo baita zentro horietan jaso dezaten laguntza, erkidegoak emandako laguntza normalizatzearen giroan horretarako sortu ziren diziplina anitzeko taldeen eskutik.

Zerbitzu horien ebaluazioa eta funtzionamenduak osotasunari buruzkoak izan beharko lukete, ezinezkoa baita diagnostiko zehatzei loturiko jardueren arabera egitea.

Hitzarturiko zentroyen (erkidego terapeutikoak) ebaluaziorik ez da egin. Esan dezakegun gauza bakarra da haiei egiten zaien jarraipena etengabekoa dela, Drogamenpekotasunei buruzko Foru Komunitateko planaren zuzendaritza teknikoari atxikiriko Adimen Osasuneko Zuzendariordetzako teknikari batek bere lanaldiaren zati handi bat horretan ematen baitu. Eginiko jarraipen horren ondorioz, gure Komunitatean erantzunik ez zuen beharizan bat zegoela antzeman da; hain zuzen, droga-arazoak izanik espezializazio handiko zerbitzu

baten beharrea dauden adingabeei laguntza ematea. Antzemate horretatik abiatuz, Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutuak baliabidea sortu du eta postuak hitzartu ditu.

Nafarroako Adimen Osasuneko sareak ahalmena dauka, bere egituraketa eta dituen profesionalak kontuan izanik, laguntza emateko drogazaleei eta bestelako patologia konkomitante batzuk ere dauzkaten pertsonei. Berariazko zentroyen sare bat sortzeak berarekin ekarriko luke gaur egungoa kentzea, eta ez dirudi horrela jokatzeari beste autonomia erkidego batzuetako joerekin bat datorrenik, hura integratzen ahalegintzen baitira. Horrela jokatzeari izanen litzateke inolako justifikazio teknikorik gabe aldatzea adimen osasunaren planean, 1990-2000 eperako osasun planean eta 2001-2005 eperako osasun planean zehazturiko irizpideak, normalizazioaren eta laguntza integratzen aldekoak.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2003ko urtarrilaren 23an

Osasun kontseilaria: Santiago Cervera Soto

## **Galdera, Nafarroako Parlamentuak hartu zuen ondoko erabakia bete al den jakiteko: “Nafarroako Gobernua premiatzen da kanabisaren erabilera terapeutikoa baimen dezan”**

### **FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA**

Foru parlamentari Carlos Cristóbal García jaunak ondoko galdera egin zuen: «Galdera, Nafarroako Parlamentuak hartu zuen ondoko erabakia bete al den jakiteko: “Nafarroako Gobernua premiatzen da kanabisaren erabilera terapeutikoa baimen dezan».

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 2002ko uztailaren 22ko 76. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2003ko urtarrilaren 28an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

### **ERANTZUNA**

Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeari atxikitako foru parlamentari Carlos Cristóbal jaunak 78/2002 galdera egin du jakiteko zertan den erabaki honen betetzea: “Nafarroako Gobernua premiatzen da kanabisaren erabilera terapeutikoa baimen dezan”. Hona hemen Osasun kontseilariaren erantzuna.

Kanabisetik eratorritako produktuak eta, beraz, haien erabilera terapeutikoa gure Komunitatean errezeta daitezke Espainiako gainerakoetan egiten den modu berean.

Prozeduraren arabera, nahitaezkoa da kasuko fakultatiboak txosten bat egitea, eta bertan zehatz ditzan produktu horiek erabiltzea justifikatzen

duten arrazoiak. Aipatu beharrekoak dira, diagnostikoa ez ezik, emaitza itxaron ez bezalakoa izan duten bestelako esperientzia terapeutikoak ere, eta adierazi beharko da kanabisetik eratorritako produktuek gaixoarentzat erdietsi nahi den eragin hori lor dezaketela.

Txostena Osasunbidearen Prestazioen Zerbitzura bidaliko da, eta bertatik Osasun eta Kontsumo Ministeriora bideratuko da, prestakina atzerriko medikamentu gisa eskaini dezan, horretarako ezarritako prozedurei jarraituz.

Orain arte hornidurarik ezari buruzko inolako kexa edo erreklamaziorik ez da jaso; hori dela-eta, pentsatzekoa da ez dela eskaerarik izan, edo, bestela, hornidura egokia izan dela.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2003ko urtarrilaren 16an.

Osasun kontseilaria: Santiago Cervera Soto

## **Galdera, 2000-2003 eperako kirol-instalazioen planaren garapenari buruzkoa**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari José Andrés Burguete Torres jaunak 2000-2003 eperako kirol-instalazioen planaren garapenari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 2002ko abenduaren 16ko 119. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2003ko urtarrilaren 30ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

### **ERANTZUNA**

Nafarroako Demokratikoen Elkargunea Parlamentuko Taldeko foru parlamentari José Andrés Burguete Torres jaunak galdera egin du 2000-2003 eperako kirol-instalazioen planaren garapenari buruz. Hona hemen Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteria kontseilariaren erantzuna, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluari eta hurrengoei jarraikiz.

1. 1.- Zeintzuk izan dira entitateek aurkezturiko eskabideak, deialdiak zehazten duen epe barruan, Nafarroako Foru Komunitateko kirol instalazioetarako 2000-2003 Planaren urte bakoitzean?

Erantzunari atxikirik dago jasotako eskaera guztien zerrenda, alfabetoaren arabera ordenaturik.

2. Urtealdi bakoitzean zeintzuk izan dira Nafarroako Kirol eta Gazteria Institutuak onarturiko eskabideak, kasu bakoitzari zenbat diru eskaini

zaio, eta zeintzuk izan dira planak iraun bitarteko urtealdi bakoitzean onartu ez diren eskabideak, eta zein da ez onartzearen arrazoiak?

Erantzunari atxikirik dago dirulaguntza jaso duten eskaeren zerrenda, obra espedienteak 2000. eta 2001. urteetan hasi diren kasuetan.

Nafarroako 2002ko aurrekontu orokorren kargura laguntzak emateko aurrekontuko dirurik ez zegoenez, toki entitateek 2002an hasitako espedienteetarako dirulaguntzak 2003ko aurrekontuko diruaren menpe gelditu da. Halaber, hautatu ez diren eskaeren zerrendak erantsi ditugu, urteen arabera.

Era berean aipatu, dirulaguntzetarako eskaerak ez hautatzeko arrazoiak direla "oinarriko irizpideak ez betetzea" eta "aurrekontuetan dirurik ez egotea", plan zuzentzaileak ezarri bezala, kontuan harturik plan zuzendaria amaitzen ez den bitartean ez direla ukoak ebatziko, eta hautatu ez diren eskaera guztiak erreserban geratuko direla.

3. 3.- Arestian aipaturiko foru aginduan ezarritakoez gain, kreditu osagarriak finkatu al da? eta hori dela kausa, foru agindu horretan konprometitutako kredituak gehitu edo gutxiagotu egin dira?

2000-2003 eperako kirol-instalazioen plan zuzendariaren osagarri, obrak finantzatu dira, 14.424.290,50 euroko zenbatekoarekin, plan zuzendari horretan ezarri zen bezala, honako obra hauetarako: Mendillorriko trinketea eta kirol pabilioia eraikitzea. Larrabide estadioa eraberritzea, Tafallako kirolaren hiria eraikitzea eta Ciudad Deportiva Amaya elkarteko 50x25 metroko

igerilekua estaltzea; ez du eraginik Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteri kontseilariak emaniko 45/2000 Foru Aginduan adierazitakoan ez eta deialdiaren oinarrietakoan ere.

4. 4.- Kirol eta Gazteria Institutuak ezarri al du kirol instalazioak hobetzeko edo eraikitzeko dirulaguntza sistemaren bat, 45/2000 foru aginduan eta deialdiaren oinarrietan aipaturikoetatik bestelakoa?

Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteri kontseilariak ekainaren 20ko 45/2000 Foru Aginduak araututako deialdiaz landara -toki entitateen kirol instalazioak baizik ez dituen diruz laguntzen-, Nafarroako Kirol eta Gazteriaren Institutuak dirulaguntzak eman ditu kirol elkarten kirol instalaziotarako, 2001/2003 urteetarako, Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteri kontseilariak apirilaren 5ean emaniko 44/2001 Foru Aginduaren bidez.

5. 5.- Kirol eta Gazteria Institutuak ba al du aurreikusia hitzarmen berariazkorik, finantzatu ahal izateko entitateek eskaturiko obrak, planean daudenak, eta Nafarroako Gobernuak finantzatuko ez dituenak? Egoera horretan dauden eskabideen zerrenda eskatzen dugu.

Nafarroako Kirol eta Gazteriaren Institutuak aurrekontuan dagoen dirua ikusirik ezarriko du aurreikuspena, gaur egun ez baitago egoera horretan daude eskaeren zerrendarik.

Hori jakinarazten dizut behar diren ondorioak izan ditzan.

Iruñean, 2003ko urtarrilaren 24an

Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteri kontseilaria:  
Calixto Ayesa Dianda

(Oharra: aipatutako eranskinak foru parlamentarien esku daude Biltzarreko Zerbitzu Orokorretako bulegoetan).

## **Galdera, banantze edo dibortzio kasuetan mantenu- eta konpentsazio-pentsio ordaingabeen ehunekoari buruzkoa**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari Carolina Castillejo Hernández andreak banantze edo dibortzio kasuetan mantenu- eta konpentsazio-pentsio ordaingabeen ehunekoari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratadain agintzen da. Galdera hori 2002ko abenduaren 16ko 119. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2003ko urtarrilaren 30ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

### **ERANTZUNA**

Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeko foru parlamentari Carolina Castillejo Hernández andreak galdera egin du banantze edo dibortzio kasuetan mantenu- eta konpentsazio-pentsio ordaingabeen ehunekoari buruz. Hona hemen Gizarte Ongizate, Kirol eta

Gazteria kontseilariaren erantzuna, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluari eta hurrengoei jarraikiz.

• Nafarroako Gobernuak egin al du ikerketarik, jakin ahal izateko banaketa edo dibortzio kasuetan, mantenurako pentsioetan eta konpentsazio pentsioetan, zenbatekoa den ordaintzen ez diren ehunekoak? Hala bada, zer datu ematen ditu ikerketa horrek?

Bai. Nafarroan, banaketa edo dibortzio kasuetan ordaintzen ez diren pentsioei buruzko azterlanak 1998an egin zen eta 1999ko maiatzean aurkeztu.

Ordaindu gabeko pentsioek egiten duten zenbatekoa azterlan osoan

1992tik 1996ra bitarte gertaturiko banaketa edo dibortzioen ondoriozko pentsioak ez ordaintzeagatik aurkeztutako erreklamazioek zenbateko eta kalkulu hauek dituzte:

	AZTERLANA		PROIEKZIOA NAFARROAN	
	Kasu kopurua	pezetak, milaka	Kasu kopurua	pezetak, milaka
<b>ELIKADURA PENTSIOAK</b>				
Hileko zenbatekoa, ordaindu gabea	292	14.809	359	18.193
Informazio zehatzik ez duten kasuak	4	-	5	-
<b>KONPENTSAZIO-PENTSIOAK</b>				
Hileko zenbatekoa, ordaindu gabea	65	3.064	80	3.764
Erreklamaturiko zenbateko bakarria	1	912	1	912

1997an erreklamaturiko zenbateko ordaindu gabeak

tzeagatik 1997an aurkeztutako erreklamazioek zenbateko eta kalkulu hauek dituzte:

1992tik 1996ra bitarte gertaturiko banaketa edo dibortzioen ondoriozko pentsioak ez ordain-

	AZTERLANA		PROIEKZIOA NAFARROAN	
	Kasu kopurua	pezetak, milaka	Kasu kopurua	pezetak, milaka
<b>ELIKADURA PENTSIOAK</b>				
Hileko zenbatekoa, ordaindu gabea	89	5.254	109	6.455
<b>KONPENTSAZIO-PENTSIOAK</b>				
Hileko zenbatekoa, ordaindu gabea	21	1.397	26	1.716

Hori jakinarazten dizut behar diren ondorioak izan ditzan.

Iruñean, 2003ko urtarrilaren 20an

Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteri kontseilaria:  
Calixto Ayesa Dianda

## Galdera, erasoen ondoriozko banantze eta dibortzioen indizeari buruzkoa

### FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari Carolina Castillejo Hernández andreak erasoen ondoriozko banantze eta dibortzioen indizeari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean

argitara dadin agintzen da. Galdera hori 2002ko abenduaren 16ko 119. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2003ko urtarrilaren 30ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués



**ERANTZUNA**

Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeko foru parlamentari Carolina Castillejo Hernández andreak galdera egin du eraso-en ondoriozko banantze eta dibortzioen indizeari buruz. Hona hemen Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteria kontseilariaren erantzuna, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluari eta hurrengoari jarraikiz.

Ba al du Nafarroako Gobernuak ikerlanik jakin ahal izateko zein den erasoengatik gertatzen

diren banaketa eta dibortzioen kopurua?

Ez. Nafarroako Gobernuak ez du ikerlanik erasoengatik gertatzen diren banaketa eta dibortzioen kopuruz.

Hori jakinarazten dizut behar diren ondorioak izan ditzan.

Iruñean, 2003ko urtarrilaren 20an

Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteri kontseilaria:  
Calixto Ayesa Dianda

## **Galdera, banantze- edo dibortzio-epaien ondoriozko mantenu- eta konpentsazio-pentsioak ordaintzen ez direnerako berme-funts bat sortzeari buruzkoa**

**FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA**

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari Carolina Castillejo Hernández andreak banantze- edo dibortzio-epaien ondoriozko mantenu- eta konpentsazio-pentsioak ordaintzen ez direnerako berme-funts bat sortzeari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 2002ko abenduaren 16ko 119. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2003ko urtarrilaren 30ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

**ERANTZUNA**

Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeko foru parlamentari Carolina Castillejo Hernández andreak galdera egin du banantze- edo dibortzio- epaien ondoriozko mantenu- eta konpentsazio-pentsioak ordaintzen ez direnerako berme-funts bat sortzeari buruz. Hona hemen Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteria kontseilariaren erantzuna, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluari eta hurrengoari jarraikiz.

Zer irizten dio Nafarroako Gobernuak banaketa edo/eta dibortzio epaietan ezarritako mantenu- eta konpentsazio-pentsioak ordaintzen ez diren kasuetarako berme-funtsa sortzeko aukerari?

Gaiaren konplexutasuna dela eta, Gobernuak berak adierazi beharko luke zein jarrera duen, gaiari buruz "Ezkontza- eta bikote-hausturen ondorengo pentsioen ez-ordaintzea Nafarroan" ikerketak agerian jarritako gogoetak egin ondoren, eta kontuan hartuta, halaber, Diputatuen Kongresuak (1996ko ekainean) eztabaidatu baina onetsi ez dituen lege proposamenak eta estatu osorako Lan eta Gizarte Gaietarako Ministerioaren menpeko Emakumearen Institutuak egindako lege aurreproiektuaren zirriborroa, aurrera ateratzerik izan ez zuena.

(Informazio osagarria erantsi dugu).

Hori jakinarazten dizut behar diren ondorioak izan ditzan.

Iruñean, 2003ko urtarrilaren 20an.

Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteri kontseilaria:  
Calixto Ayesa Dianda

(Oharra: aipatutako eranskinak foru parlamentarien esku daude Biltzarreko Zerbitzu Orokorretako bulegoetan).

## **Galdera, Osasunbidea eta Unibertsitate Klinikaren arteko kontzertuaren aldaketari buruzkoa**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari Elena Torres Miranda andreak Osasunbidea eta Unibertsitate Klinikaren arteko kontzertuaren aldaketari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 2002ko otsailaren 26ko 17. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2003ko otsailaren 5ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

### **ERANTZUNA**

Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeko foru parlamentari Elena Torres

Miranda andreak galdera egin du Osasunbidearen eta Unibertsitate Klinikaren arteko itunaren aldaketari eta Nafarroako Gobernuak ituneko tarifak gaurkotu izanari buruz. Hona hemen Osasun kontseilariaren erantzuna, eta horrekin batera itunaren eta tarifen kopiak.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2003ko urtarrilaren 31n

Osasun kontseilaria: Santiago Cervera Soto

(Oharra: aipatutako eranskinak foru parlamentarien esku daude Biltzarreko Zerbitzu Orokorretako bulegoetan).

## **Galdera, Nafarroako arte garaikidearen zentroa Iruñeko zitudadelan eraikitzeari buruzkoa**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari José Andrés Burguete Torres jaunak Nafarroako arte garaikidearen zentroa Iruñeko zitudadelan eraikitzeari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 2002ko abenduaren 16ko 119. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2003ko otsailaren 11n

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

### **ERANTZUNA**

Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentuko Taldeko foru parlamentari José Andrés Burguete Torres jaunak galdera egin du Nafarroan arte garaikidearen zentro bat eraikitzeari buruz. Hona hemen Hezkuntza eta Kultura kontseilariaren erantzuna:

1. Nafarroako Gobernuak ahalegin handia egin du legegintzaldi honetan inbertsioen arloan gure

erkidegoko azpiegitura kulturalak handitu eta hobetzeko. Abian diren proiektuetako bat da arte garaikidearen zentro bat sortzea Iruñeko Udalarren, Beaumont Fundazioaren eta Nafarroako Gobernuaren beraren bildumetan oinarriturik. Hiru alderdiek horretarako izenpeturiko hitzarmenean aurreikusirik dago zentro hori Iruñeko Zitudadelan kokatzeko aukera; bi hamarkada badira Zitudadela erakusketetarako erabiltzen dela, batez ere arte garaikidearenak, eta arlo horretan erreferente bihurtu da Nafarroako herritarrentzat.

Proiektuak Nafarroako Kultur Kontseiluko kideen gehiengoaren sostengua jaso bazuen ere, Hezkuntza eta Kultura Departamentuak Hezkuntza, Kultura eta Kirol Ministerioko Arte Ederren Zuzendaritza Nagusiarengana jo zuen, haren iritzia, gai horietako aditu gisa, ezagutzearren; horren ondorio izan zen azken erabakia atzeratzea eta Zitudadela osoa zaharberritu eta kontserbatzeko plan zuzendari bat prestatu ondoren hartuko da. Beraz, Nafarroako Gobernuak ez du baztertu Iruñeko Zitudadela Nafarroako arte Garaikidearen Zentroa edo haren atalen bat (erakuske-

ta aretoak, hitzaldi aretoak, liburutegi espezializatuak etab.) kokatzeko toki egokien artetik.

2. Nafarroako Gobernuak beste kokaleku batzuk ere aztertu ditu, Iruñean eta beste herri batzuetan, zentro hori hartzeko, ondarearen babesari buruz indarra duen araudia osotara betez.

3. Bistan da Nafarroako Gobernuak interesa duela Arte Garaikidearen Zentroa sortzeko. Zentroaren kokalekuaz esan dugunaz gain, arte garaikidearen hiru bildumak ebaluatu dira (Iruñeko Udalarena, Beaumont Fundazioarena eta Nafarroako Gobernuarena) eta Nafarroako azken mendeko artisten lanak erosteko kudeaketa adminis-

tratiboei ekin zaie, bilduma horiek osatzeko asmoarekin.

4. Arte garaikidearen Zentroa eraikitzeko epeen aurreikuspena Zidadela osoa zaharberritu eta kontserbatzeko plan zuzendari bat prestatu, aztertu eta ebaluatu eta horri buruzko erabakiak hartu ondoren taxutuko da.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2003ko otsailaren 7an

Hezkuntza eta Kultura kontseilaria: Jesús Laguna Peña

## **Galdera, Figarolen antzemandako usain batzuen jatorriari buruzkoa**

### **FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA**

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari Félix M<sup>a</sup> Taberna Monzón jaunak Figarolen antzemandako usain batzuen jatorriari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 2002ko abenduaren 26ko 121. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2003ko otsailaren 17an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

### **ERANTZUNA**

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua Parlamentuko Taldeari atxikitako foru parlamentari Félix M<sup>a</sup> Taberna Monzón jaunak galdera egin du Figarolen antzemandako usain batzuen jatorriari buruz. Hona hemen Ingurumen, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza kontseilariaren erantzuna.

1.- SLIR enpresak ongarri eta emendakin organikoak fabrikatzen dihardu; produktu horiek hondakin organikoak konpostatzeko prozesuaren bitartez lortzen ditu: purinak, oilo-zirina, haragi eta hezurrekin eginiko irinak eta araztegiatako lohiak.

Prozesuaren zenbait unetan –esate baterako, hartitzen ari diren hondakinen masari buelta ematen zaionean, usain bereizgarri horiek sor dai-

tezke, nagusi diren haizeen indarrez inguruko populazioetan ere antzeman daitezkeenak.

2.- Fabrikak ez du bere jarduera-lizentzia ez aldatu, ez zabaldu.

3.- Jarduera ikuskatu izan da; zehazki, urriaren 2an eta urriaren 15ean, eta ez da usainik antzeman fabrikaren inguruetan. Halaber, Ingurumen, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuan gertaguneko azterketak egiten dituzten langileek batzutan usainak antzeman dituzte fabrikaren inguruetan, nahiz eta fabrikaren barruan usainik ez izan; hori dela eta, ezin da alde batera utzi salatutako egoerek fabrikaren kanpoko fokuean jatorria izatea.

Hala eta guztiz ere, balizko jarduketa edo prozesu okerrak ikertzen jarraituko da, bidezkoak diren neurriak aplikatzeko. Hori dela eta, behar den komunikazioa igorri zaio Zarrakazteluko Udalari, Jarduera Sailkatuen Erregelamendua aplikatzeko.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2003ko otsailaren 12an

Ingurumen, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza kontseilaria: Jesús Javier Marcotegui Ros

## **Galdera, Altsasuko Horbesal enpresaren egoerari buruzkoa**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, Ezkerretan Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua Parlamentuko Taldeak Altsasuko Horbesal enpresaren egoerari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu dadin agintzen da. Galdera hori 2003ko otsailaren 10eko 8. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2003ko otsailaren 25ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

### **ERANTZUNA**

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua Parlamentuko Taldeari atxikitako foru parlamentari José Miguel Nuin jaunak galdera egin du Altsasuko Horbesal enpresaren egoerari buruz. Hona hemen Industria eta Teknologia, Merkataritza, Turismo eta Lan kontseilari Nuria Iturriagaitia Ripoll andrearen erantzuna.

1.- Nafarroako Gobernuak ongi ezagutzen du enpresaren egoera; izan ere, bi laguntza espediente izan dira krisian zeuden enpresei buruzko arauen babesean: espediente bat PINHOR enpresa zela-eta eta beste bat HORBESAL enpresa-rengatik. Egungo prozesua ere ezagutzen dugu, zeren eta ordainketa-etenduran aritu diren ikuskatzaileetako bat Nafarroako Gobernuak izendatu baitu.

Enpresak eskatuta, Industria Zuzendaritza Nagusiak bilera bat egin zuen enpresako ordezkariekin, egoera aztertzeko. Aipatu bileran, besteak beste, enpresari jakinarazi zitzaion Europako Batasunak ahalbidetzen duen laguntza bide bakarra, kontseilaritzak kasu hauetan erabil dezakeena, krisian dauden enpresak salbatu eta berregituratzeko laguntzak direla, iraganean ere erabili izan direnak.

2.- HORBESAL enpresa ez da sartzen krisialdian dauden enpresei buruz indarra duten foru arauetan, zeren eta Krisian dauden enpresak salbatu eta berregituratzeko laguntzei buruzko ekainaren 22ko 3/2000 Foru Legeko 12. artikuluan eta ekainaren 22ko 3/2000 Foru Legea Europako Batasunean indarra duten zuzentarauetara egokitzeko arauak ematen dituen otsailaren 3ko Foru Dekretuko 3. artikuluan ezartzen baita enpresak berregituratzeko laguntzak behin bakarrik eman daitezkeela.

3.- Enpresak porrota aurkeztu du. Hori dela eta, prozedura horren barruan, planteatutako hitzarmen prozedura aztertuko genuke, betiere horretatik enpresa bideragarria dela ondorioztatzen bada eta hitzarmena Europako Batasunaren beharrezkoen arabera bada.

Iruñean, 2003ko otsailaren 21ean

Industria eta Teknologia, Merkataritza, Turismo eta Lan kontseilaria: Nuria Iturriagaitia Ripoll

## Galdera, SOS Navarra-Larrialdien Koordinaziorako Zentroko Positrom sistema informatiko berriaren funtzionamenduari eta egokitzeari buruzkoa

### FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari M<sup>a</sup> Isabel Arboniés Bermejo andreak SOS Navarra-Larrialdien Koordinaziorako Zentroko Positrom sistema informatiko berriaren funtzionamenduari eta egokitzeari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 2003ko otsailaren 10eko 8. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2003ko otsailaren 26an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

### ERANTZUNA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua Parlamentuko Taldeko foru parlamentari María Isabel Arboniés Bermejo andreak galdera egin du SOS Navarra-Larrialdien Koordinaziorako Zentroko Positrom sistema informatiko berriaren zenbait gairi buruz. Hona hemen Lehendakaritza, Justizia eta Barne kontseilariaren erantzuna.

1) Positronek euskarria eman izan dio SOS Nafarroari eguneko 14 orduz 2002ko abuztutik 2002ko urrira bitarte; hilabete horretatik aurrera, egunean 24 orduz eta asteko 7 egunez jardun du lanean, modu normalizatuan, antzinako sistema % 100 aldatuz.

Hala eta guztiz ere, kontratuan ezarritako zenbait funtzionaltasun ezartzeko daude, eta horiek balio erantsia ematen diote. Horri dagokionez, abenduaren 31n, exekutatzeko zeuden produktu osoa jasotzea bideratuko zuketan lan batzuk; hori dela eta, enpresa adjudikazio-hartzaileak luzapen bat eskatu zuen, eta Lehendakaritza, Justizia eta Barne kontseilariaren abenduaren 31ko 0181/2002 Foru Aginduaz eman zitzaion. Egun horretatik hona, kontratua betez, enpresa adjudikazio-hartzaileari kontratuan aurreikusitako berandutzako zigorrak aplikatzen ari zaizkio.

2) Larrialdietarako gailuen koordinazioa Positrom Sistemarekin bermaturik geratu da.

Izan ere, erantzunean jaso bezala, 2002ko abuztutik eguneko 14 orduz eta urritik eguneko 24

orduz larrialdietarako laguntza Positrom sistemaz bakarrik kudeatu da, eta arintasun handiz gainditu ahal izan dira bi uholde larri eta beste bi elurte.

Deietan ez da sekula geldotasun edo/eta butxadura arazorik. Geldotasun arazo batzuk egon ziren funtsean errekurtsioei buruzko gomen-dioak biltzen zituen datu base batean. Arazo hori konpondu egin zen.

3) Honakoak dira kontratuan aurreikusitako ordainketak:

EKITALDIA	IZAERA	ZENBATEKOA (eurotan)
1999	Inbertsioak	270.455,45
2000	Gast. arrut.	60.101,21
	Inbertsioak	601.012,10
2001	Gast. arrut.	120.202,42
	Inbertsioak	661.113,31
2002	Gast. arrut.	123.618,76
	Inbertsioak	721.214,53

Honakoak dira egindako ordainketak:

EKITALDIA	IZAERA	ZENBATEKOA (eurotan)
2000	Inbertsioak	270.455,45
2002	Inbertsioak	601.012,10
2002	Inbertsioak	661.113,31

4) 2002ko bigarren seihilekoan, plantilla indartu zen, sistema berria ezartzearekin batera, langileak hari hobeki egokitzeko. Epe hori iraganik, langileen plantilla sistema zaharrarekin lan egiteko zegoen bera da. Plantillari buruz egin zitekeen balizko edozein ebaluazio berri ez litzateke sistema berriarekin eragiteari buruzkoa, baizik eta balizko beste arrazoi batzuei buruzkoa; esate baterako, lan zama handitu izana, lan berriak hartzea eta beste.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduen 184. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2003ko otsailaren 25ean

Lehendakaritza, Justizia eta Barne kontseilaria: Rafael Gurra Induráin

## Galdera, Nafarroako familiari buruzko publizitatea egiteko gastaturiko diruari buruzkoa

### FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari Carolina Castillejo Hernández andreak Nafarroako familiari buruzko publizitatea egiteko gastaturiko diruari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 2003ko otsailaren 10eko 8. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2003ko otsailaren 26an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

### ERANTZUNA

Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeko foru parlamentari Carolina Castillejo Hernández andreak galdera egin du Nafarroako familiari buruzko publizitatea egiteko gastaturiko diruari buruz. Hona hemen Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteria kontseilariaren erantzuna, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduen 184. artikuluari eta hurrengoei jarraikiz.

– Zenbat diru bideratu da, abian jarri zenetik aitzina, Familiari laguntzeko plana ezagutzera emateko? Zehaztu hedabide motaren arabera (prentsa idatzia, telebista, telefono-kabinak eta abar) eta hilabeteen arabera.

– Zenbat diru aurreikusi da xede horretara bideratzea 2003. urtean? Zehaztu aurreko galderan bezala.

Lehendakaritza, Justizia eta Barne kontseilariaren azaroaren 5eko 163/2002 Foru Aginduz Nafarroako Gobernuaren politika familiarrei buruzko komunikazio kanpaina baten kontratazioa adjudikatu zen, prozedura irekiaren eta lehiaketaren bidez.

Kanpaina hori 2002ko abenduaren eta 2003ko urtarrilean eta otsailean zen egitekoa, eta 149.659,72 euro egiten zuen, BEZa barne.

Kopuru horren truke, enpresa adjudikazio-hartzaileak ondokoak eginen ditu:

– Familiari laguntzeko planean jaso eta indarrean dauden neurri garrantzitsuenak azaltzeko 130.000 liburuxka, eskuz banatu direnak bulego eta zerbitzu publikoetan eta gutun bidez Diario de

Navarra eta Diario de Noticias egunkariekin batera.

– Egunkarietako iragarkiak (Diario de Navarra eta Diario de Noticias)

– Telebistako iragarkiak (Telenavarra eta Canal 4)

– Irratiko iragarkiak ((COPE, ONDA CERO, SER OM, SER TAFALLA, SER TUDELA)

– Zinemetako iragarkiak

– Telefono kabinen kanpoko aldeko publizitatea

– Bulego eta zerbitzu publikoetan jartzeko moduko horma-irudiak

Honakoa izan zen adjudikatutako kanpainako diruaren banaketa:

Ekintzak	Euroak
Liburuxkak	22.000
Horma-irudiak	4.300
Egunkarietako iragarkiak	42.190
Telebistako iragarkiak	22.540
Irratiko iragarkiak	5.386
Zinemetako iragarkiak	15.438
Argazkia	5.174
Telefono kabinak	11.989
Guztira	129.017
BEZa, % 16	20.643
<b>Guztira</b>	<b>149.660</b>

Betiere, liburuxkak hartzeko dagoen eskaria ikusita, litekeena da beste tirada bat egitea (mugatuagoa; oraindik ere aurrekontua egin gabe dago); bertan, datozen hiletan abian jartzen diren ekintzak sartuko lirateke.

Hori jakinarazten dizut behar diren ondorioak izan ditzan.

Iruñean, 2003ko otsailaren 21ean

Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteri kontseilaria:  
Calixto Ayesa Dianda

## Galdera, “Lagun Etxea” izenekoaren plaza batzuen hitzarmena bertan behera uzteari buruzkoa

### FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari Carolina Castillejo Hernández andreak “Lagun Etxea” izenekoaren plaza batzuen hitzarmena bertan behera uzteari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu dadin agintzen da. Galdera hori 2003ko otsailaren 10eko 8. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2003ko otsailaren 26an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

### ERANTZUNA

Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeko foru parlamentari Carolina Castillejo Hernández andreak galdera egin du “Lagun Etxea” izenekoaren plaza batzuen hitzarmena bertan behera uzteari buruz. Hona hemen Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteria kontseilariaren erantzuna, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduen 184. artikuluari eta hurrengoei jarraikiz.

– Iragan abenduaren bukaera aldean ezagutu genuen, hedabideen bidez, Lagun Etxeko hainbat plazari buruzko ituna desegiteko erabakia. Zer dela-eta hartu da halako erabaki bat?

Honako hauek izan dira kontratua deuseztatzeraz eraman gaituzten arrazoiak, hurrenkera kronologikoan:

1998ko urtarrila

Adingabeen Epaitegiko eta Fiskaltzako auto bat jaso genuen; hartan, kexu agertzen ziren Lagun-Etxea zentroak adingabe arau-hausleak tratatzeko zeukan ezintasun agerikoarengatik.

1999ko abuztua

Adingabeen taldeak, Balorazio Batzordearen bitartez, idatziz eman zituen aditzera “Lagun-Etxea” zentroarekin zeuzkan desadostasunak.

2000ko urtarrila

Ituna berritu zen, sei hilerako baino ez, “Lagun-Etxearekin” zeuden arazoak konpontzeko neurri erabakigarriak hartu arte.

2001eko martxoa

Ituna aldatu zen, Adingabeak Behatu eta Hartzeko Zentroaren (COA) kudeaketa deuseztatze-ko; hezitzaileen kopurua gutxitu zen, zentro horretara neurri judizialak dauzkaten adingabeak ez deribatze-ko akordioa zela eta. 1103/2001 Ebazpena eman zen. Ondorio guztietarako, “Lagun-Etxea” jokabide arazoak dauzkaten adingabeak babesteko zentro moduan geratzen da.

2002ko ekainaren 13an

Haur eta Gazteriarentzako Ataleko teknikariek bilera bat eskatu zuten zentroko arduradunekin, adingabeekin gertaturiko arazoak zirela eta; ondo-ko puntuak argitu nahi ziren:

– Zer den berriz hezteko zentro bat eta zentro terapeutiko bat.

– Zentroaren helburu orokorrak eta operatiboak.

– Laguntza hori jaso dezaketen adingabeen profila.

– Lanean erabili beharreko hezkuntza baliabideak eta estrategiak.

### LABURPENA

“Lagun-Etxearekin” lotura duten teknikariek sistematikoki izandako gatazkak funtzionatzen hasi zen une beretik gertatu dira.

Edozein profesional gatazkarik duen adingabeaz ulertzen duenaren eta zentroko zuzendarien iritziaren artean dagoen aldea gainditzen ezinezkoa da. Egindako ahaleginetako asko eta erabilitako estrategiek ez dute inongo emaitzarik eman.

Itunaren aldaketak gorabehera, zeinak arazoak ematen zituzten baliabideak kentzera bideraturik baitzeuden, Adingabeak Behatu eta Hartzeko Zentroa lehenbizi eta neurri judizialak gero, irizpideen ezberdintasuna ia modu sistematikokoan mantentzen da.

“Lagun-Etxeak” honako ezaugarriak dituzten adingabeekin egiten du lan: ez dute arazorik ematen, zentroaren funtzionamenduari egokitzen zaizkio, nahi dutelako daude bertan eta nolabaiteko laguntza ematen dieten familiak daukate. Adingabeen profil hori ez dago ezta txikiak babesteko zentroetan ere.

Adingabeen arazoaren errealitateak honako ezaugarriak dauka: arazo handiak ematen dituz-

te, adimen osasuneko arazoak familia arazoei lotuak, deskontrolatzeko joera, ihesak eta abar.

Bai Haur eta Gazteriarentzako Atalak bai Adingabeen Fiskaltzak uste dute "Lagun-Etxean" dauden adingabeek beren familietan baleude baino babes gutxiago daukatela. Ihesaldi sistematikoak –adingabeak desagertzen dira, eta ez dago jakiterik non dauden– eta zentroan gertakari horien artean dagoen jarrera pasiboa dira "Lagun-Etxean" seme-alabak dauzkatenen familiek gehien kezkatzen dituzten arazoak; kasuaz arduratzen diren teknikariei beren kexua helarazi izan diete, eta aipatu gertakariak zeinen maiz gertatzen den ikusita ezin zaie familiei zentroan konfiantza izateko eskatu, zeren eta errealitateak ez baitu horretarako bidea ematen.

Zentroa eta/edo hezitzaileak ez daude prest heziketa teknikak adingabeen beharrezan menpe jartzeko. Ihesaldien aurrean, uste dute

adingabeek nahi dutelako egon beharko luketela zentroan, eta bertan egon nahi ez badute ez dutela zentro horretan egon behar.

Ekipo osoak "Lagun-Etxearekin" lan egiteko zailtasunak aipatzen ditu, eta uste du zentroak ez dituela betetzen hitzarmena egin zenean ezarri ziren helburuak.

Ekipoak ongi daki neurri honek postu ugari galtzea ekar dezakeela, eta alderdi horrek garrantzi handia izan du erabakia hartzeko garaian, baina kontua da gertatzen ari direnak ikusita baliabide horrek gehienetan ez duela balio izaten.

Hori jakinarazten dizut behar diren ondorioak izan ditzan.

Iruñean, 2003ko otsailaren 20an

Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteri kontseilaria:  
Calixto Ayesa Dianda

## **Galdera, "Sancho el Mayor" helduentzako elkarteak jasotzen dituen laguntzei buruzkoa**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betetz, foru parlamentari Carolina Castillejo Hernández andreak "Sancho el Mayor" helduentzako elkarteak jasotzen dituen laguntzei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 2003ko otsailaren 10eko 8. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2003ko otsailaren 26an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

### **ERANTZUNA**

Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeko foru parlamentari Carolina Castillejo Hernández andreak galdera egin du "Sancho el Mayor" helduentzako elkarteak jasotzen dituen laguntzei buruz. Hona hemen Gizarte Ongi-

zate, Kirol eta Gazteria kontseilariaren erantzuna, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluari eta hurrengoei jarraikiz.

– Nafarroako Gobernuaren zer laguntza jaso du eta jasotzen du "Sancho el Mayor" zaharren elkarteak?

2001ean 1.021,72 euroko (170.000 pezeta) dirulaguntza jaso zuen, elkarte sortu berria baitzen.

2001ean 1.042,15 euroko (173.399 pezeta) dirulaguntza jaso zuen, jarduera batzuen kontzeptuan.

Hori jakinarazten dizut behar diren ondorioak izan ditzan.

Iruñean, 2003ko otsailaren 31n

Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteri kontseilaria:  
Calixto Ayesa Dianda



## **Galdera, mendetasuna duten kideak dauzkaten familiei ematen zaien laguntzari buruzkoa**

### **FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA**

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari M<sup>a</sup> Isabel Arboniés Bermejo andreak mendetasuna duten kideak dauzkaten familiei ematen zaien laguntzari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 2003ko otsailaren 10eko 8. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2003ko otsailaren 26an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

### **ERANTZUNA**

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua Parlamentuko Taldeko foru parlamentari Isabel Arboniés Bermejo andreak galdera egin du Mendetasuna duten kideak dauzkaten familiei ematen zaien laguntzari buruz. Hona hemen Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteria kontseilariaren erantzuna, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluari eta hurrengoiei jarraikiz.

1. Zer ari da egiten Nafarroako Gobernua familiako kide bi edo hiruk laguntza espezializatua behar duten familien kasuan?

Beren mende pertsona bat edo gehiago dauzkaten familientzako arreta, beste esku-hartze guztiak bezala, mendeko pertsona bakoitzaren egoera baloratuta ematen da, hau da, pertsona bakoitza, haren mendetasun maila eta arreten beharra baloratuta, betiere egin beharreko diru ekarpenari aurre egiteko daukan gaitasun ekonomikoaren arabera.

2. Familiaren zer per capita errentatetik aurrera eskatzen da bi aldeen artean ordaintzea ezgaitasuna edo adimen gaixotasuna duten pertsonentzako zentro espezializatuetakozko plazak?

Ezgaituentzako zentro espezializatuetakozko tarifei buruzko araua Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutuko Gobernu Batzarraren 1997ko

ekainaren 18ko erabakia da, erakunde autonomoak zuzenean edo zeharka kudeatzen dituen zerbitzuetarako tarifak eta haiek aplikatzeko arauak onesten dituenak. Erantsirik ageri da.

3. Kostu osoaren zer ehuneko ari zaie kobratzen gaixoei San Frantzisko Xabierkoa zentro psikogeriatrikoan eta ezgaitasun psikiko, adimen gaixotasun eta eritasun andeatzaileak dituzten pertsonetan Nafarroan espezializatuta daude beste zentro batzuetan sartzeko?

San Frantzisko Xabierkoa zentro psikogeriatrikoan sartzeko diren pertsonen egun erkidegoko beste zentro psikogeriatriko itunduetan sarturiko pertsonen aplikatzen zaien tarifa bera aplikatzen zaie; aurreko arauaz gainera, hirugarren adinekoendako zerbitzuak finantzatzen laguntzeko egoiztetako erabiltzaileek egin beharreko diru-ekarpena arautzen duen 17/2000 Foru Legea jo beharra dago.

4. Zer ordainketa-betekizun, familia-egoera edo bestelako baldintza izaten du kontuan Nafarroako Gobernuak familia-unitate berean ezgaitasuna duen kide bat baino gehiago duten familia horiei zerbitzu espezializatu bidez laguntza emateko, hala etxean bertan nola eguneko zentroetan eta zahar-etxe laguntzadunetan?

Aplikatzekoak diren arauak buruz aurreko galderetan emandako informazio guztiaz gainera, gogoratu beharra dago arau horietan aurreikusirik dagoela aparteko egoerei aparteko irizpideekin erantzutea.

Hori jakinarazten dizut behar diren ondorioak izan ditzan.

Iruñean, 2003ko otsailaren 24an

Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteri kontseilaria:  
Calixto Ayesa Dianda

(Oharra: aipatutako eranskinak foru parlamentarien esku daude Biltzarreko Zerbitzu Orokorretako bulegoetan).

## Galdera, Olaztiko harrobiko leherketen eraginei buruzkoa

### FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua Parlamentuko Taldeak Olaztiko harrobiko leherketen eraginei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 2003ko otsailaren 10eko 8. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2003ko martxoaren 3an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

#### **Industria eta Teknologia, Merkataritza, Turismo eta Lan kontseilariaren erantzuna**

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua Parlamentuko Taldeari atxikitako foru parlamentari José Miguel Nuin jaunak galdera egin du Olaztiko harrobiko leherketen ondorioei buruz. Hona hemen Industria eta Teknologia, Merkataritza, Turismo eta Lan kontseilari Nuria Iturriagagotia Ripoll andrearen erantzuna.

1.- Ez. Nafarroako Gobernuak une hauetan Olaztiko Udalak emandako txostena dauka, Euskal Herriko Unibertsitateak (EHU) Aldoiar eta Egibil harrobietan bibrazioei eta uhinei buruz hartutako neurrien gainekoa. Bestalde, Nafarroako Gobernuak 2002ko urriaren 8an EHUko Meatze eta Metalurgiarako Ingeniaritza, Materialen Zientzia Sailari (EUSKOIKER) enkargatu zion Aldoiar eta Egibilgo harrobietan egindako leherketek sorturiko bibrazioak eta uhinak jarraitzeko eta kontrolatzeko lana; Egibilgo harrobietan egindako neurketei buruzko txosten bat badute, eta ez dira inoiz ere araz ezarritako mugak gainditu.

2.- Udalak eskatutako informeaz ari bazarete, txosten hori sinatu zuten teknikariek emandako ziurtagirien kopia daukagu.

Egibilgo harrobian egindako neurketei buruz eskatutako txostenari dagokionez, Nafarroako Gobernuak Meatze Ustiaketak eta Geologoak espezialitateko meatze-ingeniari eta meatze-ingeniari tekniko titulazioak dauzkaten EHUko Meatze eta Metalurgiarako Ingeniaritza, Materialen Zientzia Saileko irakasleekin sinaturiko kontratuari dagokiona da: irakasle horiek daukate emaitzen erantzukizuna.

3.- Aurreko puntuan adierazitako txostenak Meatze Ustiaketak eta Geologoak espezialitateko

meatze-ingeniari eta meatze-ingeniari tekniko titulazioak dauzkaten EHUko Meatze eta Metalurgiarako Ingeniaritza, Materialen Zientzia Saileko irakasleek sinatu dituzte: irakasle horiek daukate emaitzen erantzukizuna.

Aldoiar eta Egibilgo harrobietako neurketei buruz aurreko puntu batean erantzun dugu.

4.- Leherketek sortutako bibrazioak eta aire-uhinak neurtu dira, eta inoiz ere ez dira araz ezarritako mugak gainditu.

Harrobi horiek ez dituzte sekula gainditu Espainiako Gobernuak Nafarroan duen Ordezkaritzak baimenak emateko ezartzen dituen mugak. Industria eta Energia Atala.

Bai, neurketak eta egiaztapenak egin dira, aurreikusitako moduan, aleatorioki, eta sekula ez dira araz ezarritako mugak gainditu.

5.- Emaitzak araz ezarritako mugen barruan dauden bitartean (UNE 22.381 Arauak ezarritakoa, hain zuzen), bibrazioak eraikinetan sortutako kalterik izateko inongo arriskurik ez dago; hori dela eta, ez dugu uste beharrezkoa denik instalazio bat egitea, Olaztiko harrobietan egindako leherketa guztien bibrazioak neurtzeko. 2003an neurketak egiten jarraituko dugu, eta emaitzak ikusita behar diren neurriak hartuko ditugu.

Aurreko emaitzak ikusita, ez dugu instalazio horren kostua baloratu. Emaitza horiek bestelakoak izanez gero, instalazio horren kostua neurtuko genuke.

Gainerako galderei, Ingurumen Departamentuak erantzunen die.

Balioetsi al ditu Nafarroako Gobernuak harrobietako leherketek basoan eragindako kalteak?

15.- Ireki al du Nafarroako Gobernuak informazio edo zehapen espedienterik ustezko ingurumen-kalte horiek direla eta?

16.- Ireki ez baldin badu, irekitzeko asmoa al du?

17.- Egiaztatu al du Nafarroako Gobernuak Aldoiar eta Egibilgo harrobiak ustiatzen dituzten enpresek lehengoratzeko planak betetzen dituzten –jarduera lizentzien arabera plan horiek bete behar dituzte bere jarduerak eragindako ingurumen-kalteak arindu eta ezabatzeko–?

18.- Egiaztatu baldin badu, zer emaitza izan dute aipatu lehengoratzeko planek?

Ingurumen Departamentuak erantzunen du.

Iruñean, 2003ko otsailaren 21ean

Industria eta Teknologia, Merkataritza, Turismo eta Lan kontseilaria: Nuria Iturriagagoitia Ripoll

### **Ingurumen, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza kontseilariaren erantzuna**

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari José Miguel Nuin jaunak galdera egin du Olaztiko harrobiko leherketen ondorioei buruz. Hona hemen Ingurumen, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza kontseilariaren erantzuna.

– Egia al da enpresek berek emandako neurketak direla Olaztiko leherketen intentsitateari buruz Nafarroako Gobernuak dituen neurketa bakarrak?

Ez. Nafarroako Gobernuak une hauetan Olaztiko Udalak emandako txostena dauka, Euskal Herriko Unibertsitateak (EHU) Aldoiar eta Egibil harrobietan bibrazioei eta uhinei buruz hartutako neurrien gainekoa. Bestalde, Nafarroako Gobernuak 2002ko urriaren 8an EHUko Meatze eta Metalurgiarako Ingeniaritza, Materialen Zientzia Sailari enkargatu zion Aldoiar eta Egibilgo harrobietan egindako leherketek sorturiko bibrazioak eta uhinak jarraitzeko eta kontrolatzeko lana; Egibilgo harrobietan egindako neurketei buruzko txosten bat badute, eta ez dira inoiz ere araz ezarritako mugak gainditu.

– Egia al da neurketa horiek sinatu gabe eta zein teknikarik egin dituen jaso gabe daudela?

Udalak eskatutako informeaz ari bazarete, txosten hori sinatu zuten teknikariek emandako ziurtagirien kopia daukagu.

Egibilgo harrobian egindako neurketei buruz eskatutako txostenari dagokionez, Nafarroako Gobernuak Meatze Ustiaketak eta Geologoak espezialitateko meatze-ingeniari eta meatze-ingeniari tekniko titulazioak dauzkaten EHUko Meatze eta Metalurgiarako Ingeniaritza, Materialen Zientzia Saileko irakasleekin sinaturiko kontratuari dagokiona da: irakasle horiek daukate emaitzen erantzukizuna.

– Hala baldin bada, zer sinesgarritasun dute neurketa horiek Nafarroako Gobernuarentzat? Egin al ditu Nafarroako Gobernuak azterlanak eta neurketak Olaztiko Aldoiar eta Egibil harrobietako jarduna dela eta?

Aurreko puntuan adierazitako txostenak Meatze Ustiaketak eta Geologoak espezialitateko meatze-ingeniari eta meatze-ingeniari tekniko titulazioak dauzkaten EHUko Meatze eta Metalurgiarako Ingeniaritza, Materialen Zientzia Saileko irakasleek sinatu dituzte: irakasle horiek daukate emaitzen erantzukizuna.

Aldoiar eta Egibilgo harrobietako neurketei buruz aurreko puntu batean erantzun dugu.

– Neurtu al ditu bertako leherketen intentsitatea eta leherketek eragindako dardarak? Egiaztatu al du jarduera lizentzia eta baimenek lehergai karga nahiz intentsitatea direla-eta ezarritako mugetan egiten direla harrobi horietako leherketak? Frogak eta neurketak egin baldin baditu, modu jarraian ala noizbehinka egin al ditu? Gobernuaren bitartekoak erabilia ala lanak kontratatuta egin al ditu? Zeintzuk izan dira lan eta neurketa horien emaitzak?

Leherketek sortutako bibrazioak eta aire-uhinak neurtu dira, eta inoiz ere ez dira araz ezarritako mugak gainditu.

Harrobi horiek ez dituzte sekula gainditu Espainiako Gobernuak Nafarroan duen Ordezkaritzak baimenak emateko ezartzen dituen mugak. Industria eta Energia Atala.

Bai, neurketak eta egiaztapenak egin dira, aurreikusitako moduan, aleatorioki, eta sekula ez dira araz ezarritako mugak gainditu.

– Nafarroako Gobernuaren ustez, egokia izan litzateke, bizilagunen lasaitasuna bermatze aldera, instalazio tekniko iraunkor bat paratzea Olaztiko harrobietan egindako leherketa guztien intentsitatea nahiz dardarak era egonkor eta iraunkorrez neurtzeko? Zenbateko kostua izanen luke gutxi gorabehera gisa horretako instalazio batek? Aurreikusi al du Nafarroako Gobernuak gisa horretako jarduketarik? Eska al lekieke enpresei neurketa-estazio iraunkorrak paratzea?

Emaitzak araz ezarritako mugen barruan dauden bitartean (UNE 22.381 Arauak ezarritakoak, hain zuzen), bibrazioak eraikinetan sortutako kalterik izateko inongo arriskurik ez dago; hori dela eta, ez dugu uste beharrezkoa denik instalazio bat egitea, Olaztiko harrobietan egindako leherketa guztien bibrazioak neurtzeko. 2003an neurketak egiten jarraituko dugu, eta emaitzak ikusita behar diren neurriak hartuko ditugu.

Aurreko emaitzak ikusita, ez dugu instalazio horren kostua baloratu. Emaitza horiek bestelakoak izanez gero, instalazio horren kostua neurtuko genuke.

Balioetsi al ditu Nafarroako Gobernuak harrobiaren leherketek basoan eragindako kalteak? Ireki al du Nafarroako Gobernuak informazio edo zehapen espedienterik ustezko ingurumen-kalte horiek direla eta? Ireki ez baldin badu, irekitzeko asmoa al du?

Aldoiar, S.L.aren harrobiaren ustia ketako lurrek inbaditutako oihan aldea oso txikia da, eta harrobiaren kontzesioak hartzen dituen mugen barruan dago.

Zuhaitzetan eragindako kalteak ez dira oso garrantzitsuak; ikus daiteke ondorio handienak pairatutako aldea "harritzak" direla, eta zuhaitzetan oso kalte gutxi egin direla.

Beti ere, enpresa kontzesio-hartzaileak abal bat badauka bere jarduerak ekar litzakeen kalteei aurre egin ahal izateko.

Gaur egun arte, Ingurumen, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuak ez du beharrezko ikusi jarduera horrek eragindako kalteak baloratzea, oso eragin urria baitu. Hala eta guztiz ere, ingurumenean kalte edo urrapen handiagoak sortuz gero, Departamentu honek behar den salaketa aurkeztuko du.

Une honetara arte, ez da inongo zehapen espedienterik zabaldu ingurumenari eragindako balizko kalteei buruz. Aipatutakoa ikusita, ez dugu uste bidezkoa denik gaur egun halakorik egitea.

– Egiaztatu al du Nafarroako Gobernuak Aldoiar eta Egibilgo harrobiak ustiatzen dituzten enpresek lehengoratzeko planak betetzen dituzten

–jarduera lizentzien arabera plan horiek bete behar dituzte bere jarduerak eragindako ingurumen-kalteak arindu eta ezabatuzko? Egiaztatu baldin badu, zer emaitza izan dute aipatu lehengoratzeko planek?

Behin baino gehiagotan egiaztatu da lehengoratzeko planen exekuzioaren norainokoa, eta hala-koetan jarduera-lizentzietan epe laburrerako aurreikusitako neurriak exekutatzeko eskatu izan da.

Egibilgo harrobia nahiko ongi betetzen ari da bere lehengoratzeko planetan ezarritako neurriak, hain zuzen ere erauzketa jarduerak garatu bitartean egitea aurreikusi zirenak; programatutakoak, berriz, erauzketa lanak amaitzen direnean egingen dira.

Aldoiar harrobia partzialki betetzen ari da erauzketa jarduerak garatu bitartean egitea aurreikusi zirenak lehengoratzeko neurriak. Harrobiko titularrari eskatu zaio egiteko dauden lehengoratzeko lan horiek egin ditzan, hain zuzen ere agregakinak tratatzeko plantaren mendebaldean dagoen lubetako aldeari dagozkionak.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2003ko otsailaren 26an.

Ingurumen, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza kontseilaria, Jesús Javier Marcotegui Ros

## **Galdera, Unibertsitateetarako eta Hizkuntza Politikarako Zuzendaritza Nagusiko langile batzuen “zerbitzu eginkizunen” araubideari buruzkoa**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari Begoña Errazti Esnal andreak Unibertsitateetarako eta Hizkuntza Politikarako Zuzendaritza Nagusiko langile batzuen “zerbitzu eginkizunen” araubideari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 2003ko otsailaren 10eko 8. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2003ko martxoaren 6an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

### **ERANTZUNA**

Eusko Alkartasuneko foru parlamentari Begoña Errazti Esnal andreak galdera egin du Unibertsitateetarako eta Hizkuntza Politikarako Zuzendaritza Nagusiko langile batzuen “zerbitzu eginkizunen” araubideari buruz. Hona hemen Hezkuntza eta Kultura kontseilariaren erantzuna.

Unibertsitateetarako eta Hizkuntza Politikarako Zuzendaritza Nagusiak, administrazioaren beste edozein instantziak bezala, gaitasuna duten langileak eta behar diren kopuruan behar ditu arauetan ezarritako eginkizunak beteko baditu. Hala eta guztiz ere, batzuetan gertatzen da plantilla organikoak ez datozela bat zerbitzuaren beharrizaneekin,

eta zerbitzuak arintasunez erantzun behar diela gizartearen eta administrazioaren beraren beharri-zanei.

Horri garrantzi handiko beste inguruabar bat gehitu behar zaio: funtzionarioen mugikortasuna; horrek, izan ere, aukera handia ematen du funtzionarioa lanpostu batzuetatik beste batzuetara joateko. Unibertsitateetarako eta Hizkuntza Politikarako Zuzendaritza Nagusian, guztira, hogeita bederatzi pertsona daude plantillan; lanpostu betegabeak eta erreserbak hamaika dira; horietatik, sei beterik daude eta bost libre; obrako kontratu bat dago lau langile zerbitzu eginkizunetan daude. Zerbitzu eginkizun horiek lau funtzionario irakaslerenak dira: bi B mailakoak eta beste biak A mailakoak. Bik Nafarroako Gobernuak emandako Euskararen Gaitasun Agiria (EGA) daukate; horietatik, bat zuzenean Unibertsitateetarako eta Hizkuntza Politikarako Zuzendaritza Nagusiarik atxikirik dago eta bestea Hizkuntza Garapenerako Atalari. Gainerako bi funtzionarioak atal honi atxikirik daude, eta ingeleseko irakasleak dira.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2003ko martxoaren 3an

Hezkuntza eta Kultura kontseilaria: Jesús Laguna Peña

## Galdera, Ave Maria ikastetxe publikoaren handitzeari buruzkoa

### FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari Carlos Cristóbal García jaunak Ave Maria ikastetxe publikoaren handitzeari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 2003ko otsailaren 10eko 8. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2003ko martxoaren 6an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

### ERANTZUNA

Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeari atxikitako foru parlamentari Carlos Cristóbal García jaunak galdera egin du Nafarroako Gobernuak Ave María ikastetxe publikorako dauzkan aurreikuspenei buruz. Hona hemen Hezkuntza eta Kultura kontseilariaren erantzuna.

Ekainaren 11ko 146/2001 Foru Dekretuaren bitartez, "Ave María I eta Ave María II" ikastetxeak sortu ziren (geroan, "Ave María" eta Patxi Larrainzar" izenak hartu zituztenak), Haur eta Lehen Hezkuntzako etapetan aritzeko A-G eta D ereduetan, hurrenez hurren. Orduan lehendik zeuden lekuak egokitu ziren, eta lan horietan 117.938 euro inbertitu zituen Hezkuntza eta Kultura Departamentuak. Lan horiekin batera, Iruñeko Udalak eraikineko fatxadak, teilatuak eta teilatu-hegalak konpondu zituen; 127.773,57 euro inbertitu zituen.

Gaur egun, "Ave María" ikastetxea lerro bakarreko ikastetxe bat da, 9 taldetan 191 ikasle dituen. 9 talde horiei atzertzeko, 9 ikasgela arrunt eta 4 ikasgela bikoiztu dauzka. "Patxi Larrainzar" Ikastetxe Publikoak 2 lerro dauzka, 215 ikaslerekin eta 12 talderekin; 12 ikasgela arrunt eta 3 ikasgela bikoiztu dauzka. Bestalde, hizkuntza eredu ezberdinetako ikasleek Psikomotrizitate, Informatika, Hizkuntza eta Pedagogia Terapeutikoko ikasgela berariazkoak konpartitzen dituzte,

bai eta logopedia eta orientazio zerbitzuak, liburutegia eta erabilera anitzeko aretoa ere.

Hala eta guztiz ere, gaurko matrikularen datuek eta ikastetxe hauen inguruan gertatzen ari den hiri-garapenak iragartzen dute hiru edo lau urteren buruan beste espazio batzuk beharko direla. Hezkuntza eta Kultura Departamentuak beste eraikin bat egitea aurreikusi du; gaurko ikastetxeen ondoko orube batean egingen da. Iruñeko Udalak hura eskolako barrutiari eransteke tramiteetan hastea erabaki zuen. Ikasturtean zehar, beharizanen programa egituratzen joan da, eta 2004ko ekitaldian behar den erabakia hartuko da, bai behar diren zuzkidurei buruz, bai eraikuntzari ekiteko uneari buruz.

Orube horretan, hain zuzen ere, une hauetan ikasgela modularren eraikin bat ezarri da, bertan "Cardenal Ilundain" Ikastetxe Publikoko ikasleak egon daitezkeen beren eraikineko zabaltze eta zaharberitze integraleko obrak egiten diren bitartean. Zabaltze hori lagungarri gertatuko da, hala ere, datozen urteetan alde horretan sortuko diren eskolatze beharrei erantzuteko. Ave María eta Patxi Larrainzar ikastetxeetan hezkuntza espazio berrietarako gerta daitezkeen beharizanak, ikastetxe berria eraiki aurrekoak, aipatu eraikin modularra okupatuz bete litezke; izan ere, eraikin hori hemendik gutxira hutsik geratuko da, eta 665,80 m<sup>2</sup> erabilgarri dauzka guztira (10 ikasgela arrunt eta 2 ikasgela bikoiztu, 2 bulego, biltegi bat, komunak eta atezaintza dauzka).

Bukatzeko, esan beharra dago Iruñeko Udalak, 2003ko ekitaldirako bere titularitateko ikastetxeetan egitekoak diren obren programaren barruan, bi ikastetxeetako eskola-barrutian pista estali bat egitea aurreikusi duela.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2003ko martxoaren 3an

Hezkuntza eta Kultura kontseilaria: Jesús Laguna Peña

## **Galdera, erasoen ondoriozko banantze eta dibortzioen indizeari buruzkoa**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari Carolina Castillejo Hernández andreak erasoen ondoriozko banantze eta dibortzioen indizeari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 2003ko otsailaren 10eko 8. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2003ko martxoaren 6an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

### **ERANTZUNA**

Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeko foru parlamentari Carolina Castillejo Hernández andreak galdera egin du eraso-

en ondoriozko banantze eta dibortzioen indizeari buruz. Hona hemen Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteria kontseilariaren erantzuna, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluari eta hurrengoei jarraikiz.

– Ba al du Nafarroako Gobernuak ikerlanik jakin ahal izateko zein den erasoengatik gertatzen diren banaketa eta dibortzioen kopurua?

Ez. Nafarroako Gobernuak ez du ikerlanik erasoengatik gertatzen diren banaketa eta dibortzioen kopuruz.

Hori jakinarazten dizut behar diren ondorioak izan ditzan.

Iruñean, 2003ko otsailaren 26an

Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteri kontseilaria: Calixto Ayesa Dianda

## **Galdera, konpentsazio- eta mantenu-pentsioak ordaintzen ez direneko kasuen ehunekoari buruzkoa**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari Carolina Castillejo Hernández andreak konpentsazio- eta mantenu-pentsioak ordaintzen ez direneko kasuen ehunekoariburuz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 2003ko otsailaren 10eko 8. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2003ko martxoaren 6an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

### **ERANTZUNA**

Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeko foru parlamentari Carolina Castillejo Hernández andreak galdera egin du banantze edo dibortzio kasuetan mantenu- eta konpentsazio-pentsio ordaingabeen ehunekoari buruz. Hona hemen Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteria kontseilariaren erantzuna, Nafarroako

Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluari eta hurrengoei jarraikiz.

– Nafarroako Gobernuak egin al du ikerketarik, jakin ahal izateko banaketa edo dibortzio kasuetan, mantenu- eta konpentsazio-pentsioetan, zenbatekoa den ordaintzen ez diren ehunekoak? Hala bada, zer datu ematen ditu ikerketa horrek?

Bai. Nafarroan, banaketa edo dibortzio kasuetan ordaintzen ez diren pensioei buruzko azterlanak 1998an egin zen eta 1999ko maiatzean aurkeztu.

Ordaindu gabeko pensioek egiten duten zenbatekoa azterlan osoan.

1992tik 1996ra bitarte gertaturiko banaketa edo dibortzioen ondoriozko pensioak ez ordaintzeagatik aurkeztutako erreklamazioek zenbateko eta kalkulu hauek dituzte:

	AZTERLANA		PROIEKZIOA NAFARROAN	
	Kasu kopurua	pezetak, milaka	Kasu kopurua	pezetak, milaka
<b>ELIKADURA PENTSIOAK</b>				
Hileko zenbatekoa, ordaindu gabea	292	14.809	359	18.193
Informazio zehatzik ez duten kasuak	4	-	5	-
<b>KONPENTSAZIO-PENTSIOAK</b>				
Hileko zenbatekoa, ordaindu gabea	65	3.064	80	3.764
Erreklamaturiko zenbateko bakarra	1	912	1	912

1997an erreklamaturiko zenbateko ordaindu gabeak

tzeagatik 1997an aurkeztutako erreklamazioek zenbateko eta kalkulu hauek dituzte:

1992tik 1996ra bitarte gertaturiko banaketa edo dibortzioen ondoriozko pentsioak ez ordain-

	AZTERLANA		PROIEKZIOA NAFARROAN	
	Kasu kopurua	pezetak, milaka	Kasu kopurua	pezetak, milaka
<b>ELIKADURA PENTSIOAK</b>				
Hileko zenbatekoa, ordaindu gabea	89	5.254	109	6.455
<b>KONPENTSAZIO-PENTSIOAK</b>				
Hileko zenbatekoa, ordaindu gabea	21	1.397	26	1.716

Hori jakinarazten dizut behar diren ondorioak izan ditzan.

Iruñean, 2003ko otsailaren 26an

Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteri kontseilaria:  
Calixto Ayesa Dianda

<b>HARPIDETZAREN PREZIOA</b>	<b>IDAZLARITZA ETA ADMINISTRAZIOA</b>
<b>ALDIZKARI OFIZIALA ETA BILKURA EGUNKARIA</b>	<b>NAFARROAKO PARLAMENTUA</b>
Urte bat ..... 40,27 euro	«Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofiziala»
Aldizkari Ofizialaren aleko prezioa ..... 1,02 »	Navas de Tolosa, 1
Bilkura Egunkariaren aleko prezioa ..... 1,20 »	31002 IRUÑA